

Uda Aiaraldean

Badugu zer gozatu



Udariklik

ARGAZKI LEHIAKETA 2020

Bidali zure argazkiak
688848152 telefonora edo erredakzioa@aiaraldea.eus helbidera,
izen-abizenak eta irudiaren izenburuarekin batera.

Lanak bidaltzeko epe muga: irailak 20
Bozketa fasea: irailaren 21etik 30era www.aiaraldea.eus-en

Kategoriak eta sariak

MUNDUA: 4 lagunentzat gaua Arbizuko kanpingeko bungalowan

AIARALDEA: 2 lagunentzat gaua eta gosaria Gorbeiko aterpean

TALDE ARGAZKIAK: 2 lagunentzat dastatze menua Laudioko Kumeak jatetxean.



Mundua



Aiaraldea



Talde argazkiak



Antolatzailea



Elkar zaintzea dagokigu

Egiten duguna gara, bistan da. Ekintzek egiten gaituzte. Udan ere bai. Garaiotan izaten da astirik gehien aisialdirako. Ingurua zaintzea, ordea, ezinbestekoa da hazten jarraitzeko. Zentzu horretan, ezagutzak du garrantzia handia. Izan ere, zenbat dakigu Aiaraldez? Ba al dakigu baloratzen inguruan duguna?

Uda berezia izaten ari da 2020koa, jairik gabeko uda. Hala ere, badira gozatzeko ha- maika aukera. Eskuarlean duzun *Uda Aiaraldean* aldizkarian paperera ekarri ditugu bailaran gauzatu daitezkeen txango eta plan ugari. Eta, nola ez, herritarrek hartu dute hitza. Tokian toki, hainbat ibilbide aurkeztu dizkigute argazki bidez, guztion gozame- nerako. Eten dira jaiak, baina koronabirusak ez gaitu geldiarazi.

Zaintzea dagokigu garaiotan. Gure burutik hasita, ingurua, hizkuntza, ondarea, historia... zaintzea. Zentzu horretan, Aiaraldea Ekintzen Faktoriak apustu handia eta sendoa luzatu du: komunikazio faktoria gisa hasi zena, bizitzeko faktoria bilakatzea. Ez dira debalde pasa 10 urte. Webgune batekin hasi zen komunikazio proiektuak, ha- mabostero, 32 orriko 10.000 egunkari ale banatzen bukatu du; 200 orriko urtekarian kirol eremua euskaraz aletzen; informazioa zuzenean jaso eta zabaltzetik, zuzene- ko emanaldiak ikus-entzunezkoetan eskaintzera. Apirilaren 17an, komunikabidearen 10. urtemuga zela-eta, webgunea berri- genuen. Udazkenean, berriz, *Aiaraldea He- men* hamabostekaria berrezugarrituko dugu. Bertakoa indartzean dago gakoa, eta guztiok dugu zer egin hor. Bai, zuk ere bai.

Mundua bezala, geldiezinak gara. Buel- tataka gabiltza uneoro, eztanda egin gabe bi- zirauten jarraitzeko. 400 bazkideren bultzadari esker, inoiz baino indartsuago dago Aiaraldea Kooperatiba Elkartea; jakin arren babes oro gutxi dela datorren olatuari aurre egiteko. Garai zailak eta biziki gogorak datoz denontzat. Dena den, helduko da ar- gia. Guk, behintzat, horretarako lanean jarraituko dugu. Geroa euskaraz argizatzen.

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak 10 urte bete ditu sorgintzan. Sortu ditugu komunika- zio tresnak, komunikabideak, Aiaraldea.eus kasu. Saretu ditugu tokiko janari ekoiz- leak: Ekonomatuak bertako ekoizleen eta produktu ekologikoen plaza atondu du. Bultzatu ditugu eskualdeko sortzaile zein eragileak, euren jardueraren berri emanez atarian zein hedabideko bestelako plataforma digitaletan. Edota, balio eraldatzaileen bidez hezte- a helburu, Kokoriko Hezkuntza Faktoriako kideekin elkarlanean sustatu ditugu heziketarako baliabideak; dosierrak, bideoak eta beste. Ez da alferrik izan es- kualdeko bizitzak eta euskara erdigunera ekartzeko jarritako alea.

Ez dira betiko garai onenak. Elkar zaintzea dagokigu. Babestea. Eta, hasieran esan bezala, horretarako ezinbestekoa da ezagutza. Eskuarlean duzun aldizkariak horre- tarako tresna izan nahi du. Bertakoaren erakusleihoa. Aiaraldearen ezagutzaren le- kuko. Historia zein ingurumena ezagutzeko lanabes. Urte "historiko" baten oroigarri; gure burua eta ingurua zaintzen ikasi genuen urtea. Gozatu. Partekatu (baina aldizka- ria eskutan hartu baduzu, zuretzat gorde eta eskutik eskura pasatzea saihestu). Opor- garaia den arren, aurrera egiteko ez dago beti urrunera jo beharrik.

**UDA
AIARALDEAN
2020**
UDAKO
ALDIZKARI
BEREZIA

Argitaratzailea:

Aiaraldea Koop. Elkartea

Tirada:

10.000 ale.

Lege gordailua:

BI-1230-2013

Erredakzioa:

Aiaraldea hedabideko
erredakzioa

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

Publizitatea:

publizitatea@aiaraldea.eus

Tlfnoa: 618243937

Web-gunea:

www.aiaraldea.eus

Helbideak:

Nerbiol Kalea 12, behea
Laudio. Araba. 01400

Telefonoak:

94 656 85 54

688 848 152

OHARRA:

*Aiaraldea hedabideak
ez du bere gain
hartzten elkarrizketetan
adierazitakoaren
erantzukizuna.*



AIARA




GENTZA ALAMILLO UDAETA **Aiarako alkatea**

Asteak dira Aiaran San Prudentzio zaindariaren jaiak bertan behera uzteko erabaki zaila hartu behar izan genuela. Jaiegun hori ezin izan da ospatu erantzukizunagatik eta, batez ere, zuhurtziagatik, COVID-19ak eragindako osasun-krisia larriagotu dezaketen pilaketak edo arrisku-egoerak saihesteko. Aiarako herritarrentzat jaiak eta ohiturek kultura eta aisialdi balio handia dute, Arespalditzako San Isidro Azokak kasu, bertan behera utzi behar izan zutena. Iraileko lehen larunbatean, San Vitoresen omenez, ohi bezala, hainbat ekitaldi egin behar ziren, hala nola meza, sokatira eta artzainari omenaldia, Kobata aterpearen inguruetan, Gorobel mendilerroan. Ospakizun hori ere bertan behera geratu da.

Aiarar guztiei eskatu nahi nieke ez lasaitzeko birusaren aurrean, herritar guztien ardura baita koronabirusaren hedapenari eusteko ahaleginak egitea. Orain, inoiz baino gehiago, gure ingurukoekin arduratsuak eta solidarioak izan behar dugu, eta osasun-agintariek ezarritako gomendioak bete behar ditugu. Ziur nago, horrela, laster aterako garela egoera honetatik.



Aiazkila Irreche



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Kexaako monumentuko harribitxiak


Aiaraldeko historiaren gotorleku nagusienetako bat da Kexaako monumentu-multzoa. Amurriotik Artzinegara doan C-624 errepidea hartu behar da bertara iristeko, Arespalditza parean bidearen ezker aldera joz. Eraikinetara iristeko bide estu bat hartu eta zubi bat igaro behar da.

Hainbat eraikinek osatzen dute monumentu-multzoa: Adatsaren Ama Birjinaren dorre-kapera, San Joan Bataiatzailea elizak eta Aiaratarren Jauregi Gotortuak. Azken hori XIV. mendean eraiki zuen Fernan Perez de Aialak eta gaur egun Arte Sakratuko museoa dago bertan.

Eskualdeko historiari lotutako hainbat harribitxi topatu daitezke gunean. Dorre-kaperaren beheko solairuan, adibidez, Aiarako Jauntxoaren hilobia dago, eta bertan zegoen erretaula gotikoaren kopia ere ikusi daiteke. XX. mendearen hasieran saldu zuten artelan hori, eta 1928. urtetik aurrera Chicagoko Arte Insitutuaren dago. Zoritzarrez, ez da faltan dagoen pieza bakarra, duela bi urte santutegiko kanpaiak lapurtu zituzten eta.

Arte Sakroko Museoa ere ikusgarria da. Aiarako Jauntxoaren historiari eta antzinako Domingotarren komentuko amei lotutako kuadroak eta bestelako piezak ikusi daitezke bertan, horietako batzuk 600 urte baino gehiagokoak.

Bisitak doakoak dira, baina aurretik hitzartu behar dira 945 39 92 64 telefonora deituta.



Argazkiak: Arabako Foru Aldundia, Margavela eta The Carouselambra Kid



URAGORRI S.L

ITURGINTZA - BEROKUNTZA
GAS - AEROTERMIA

Dionisio Aldama 3, 14.lokala
01470 Amurrio
adm.uragorri@gmail.com

Tel: 945 041 395
671 624 250
654 056 953

hitz
zentroa

LOGOPEDIA / PEDAGOGIA
FISIOTERAPIA PEDIATRIKOA
OSASUN OROKORREKO PSIKOLOGIA
SEXOLOGIA KLINIKOA

PROFESIONAL
EUSKALDUNAK
ZURE
ZERBITZURA

Arreta goiztiarra (0-6 urte)

Karmen kalea 39, 01400 LAUDIO hitz.zentroa@gmail.com
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22



Txangoa

Aiarako herri guztietan barrena

Jose Antonio eta Arkaitz Calavia aita eta semea- ibilbide ederra osatu dute Aiarako herri guztietan barrena. Guztira, udalerria osatzen duten 23 Administrazio Batzarrak zeharkatu dituzte oinez. Horretarako 13 ordu behar izan dituzte, eta 62 kilometro eta 1.800 metroko desnibela bete dute. "Elizaz eliza, tradizioak agintzen duen bezala", adierazi dute.

Jose Antonio eta Arkaitzen familia

proiektuaren helburua, hain zuzen, senideen erroak omentzea zen. "Amaren familia aiarrarra da, aitite Salmantongoa eta amama Maroñokoa. Beste senide asko ere Aiarako herrietan bizi dira. Hori izan da proiektu txiki hau burutzeko arrazoi edo motibaziorik nagusiena: familia horren sustrai eta lur horiengandik gertuago sentitzeko irrika" azaldu du Arkaitz Calaviak.

Gazteak argitu du izan dituztela beste-

lako xedeak ere: "Beste motibazio bi izan dira aitarekin esperientzia berezi hori partekatzeko aukera izatea eta etorkizunean edonork gauzatzeko ibilbide aiarrar berezia sortzea, ibilbide sinbolikoa oso -Aiara gure lurra da-, edo behintzat, hori egin daitekeela edo interesgarria edo polita izan daitekeela jendeari erakustea. Izan ere, guk dakigula behintzat, orain arte gure zonaldean inork ez du horrelako ibilbiderik egin".



Jose Antonio eta Arkaitz Calavia aita-semeek batera egin dute ibilbidea Aiarako herri guztietan barrena.

Aiara osatzen duten 23 administrazio batzarrak eta 24 herriak zeharkatu dituzte.





13 ordu behar izan dituzte ibilbidea osatzeko, eta 62 kilometro eta 1.800 metroko desnibela bete dute.



Elizaz-elizajoanda osatu zuten bidea, "tradi- zioak agintzen duen moduan".



Datuak

DENBORA: 13 ordu **IBILBIDEA:** Etxegoien, Izoria, Maroño, Agiñiga, Madaria, Salmanton, Añes, Lejarzo, Erbi, Luxo, Ozeka, Menoio, Kexaa, Beotegi, Retes de Lanteno, Soxo, Costera, Lanteno, Menagarai, Zuhatza, Arespalditza, Murga, Olabezar eta Luiaondo **LUZERA:** 62 kilometro



Maroñoko urtegiko historia eta istorioak

Maroñoko urtegikoa da, dudarik gabe, Aiaraldeko paisaiarik ikonikoenetako bat. Zelaiez inguratutako urmaela, atzean Gorobelesko mendilerroa duena. Dena den, postal itxurako paisaia hori ez da beti horrelakoa izan. Urtegia duela ia 30 urte eraiki zuten, eta erabat eraldatu zuen ingurua.

“Garai hartan ur-gabezia zegoen eskualdean, Laudion batez ere. Lehorte latzak zeuden. Horregatik eraiki zen urtegia, eskualdeko ur-sarea hornitzeko”. Hala azaldu du Enrique Arberasek. Maroñori buruzko liburua argitaratu zuen biologo amurriarrak duela hiru urte, urtegiaren inaugurazioaren 25. urteurrenean.

Eraikin urperatuak



Eraikin gutxi zeuden urtegia eraiki zen tokian. “Eskolak zeuden, adibidez. Eraikin horiek guda zibilaren ostean eraiki ziren, nahiko berriak ziren. Bazeuden baita hainbat ur-erota ere, eta baita garaje moduan erabiltzen ziren etxola batzuk”, oroitu du Arberasek. Hala ere, eraikin guztiak urtegia urez bete baino lehen eraitsi zirela gaineratu du amurriarrak. “Beraz, ez da egia ur-maila jaisten denean eraikinak ikusi daitezkeela, hori mito bat da”, ziurtatu du. Hala ere, Aginigara doan zatian zubi baten eta haritza baten arrastoak ikusi daitezkeela aipatu du biologoak, “udan zuhaitzaren muturretako adarrak ikusi daitezke”.

Bioaniztasuna

Paisaia soilik ez, Maroñoko natura ere goitik behera aldatu zuen urtegiaren eraikuntzak. “Beste habitat bat sortu zen bat-batean: ur-ekosistema bat”. Gaur egun, zonalde hori da eskualdean bioaniztasun handienetakoa duena, Arberasen hitzetan. “Horrenbeste ur egoteak hegazti andana erakarri zuen. Udaberrian, udan eta udazkenean migrazioan dabiltzan hegazti ugari bertaratzen dira Maroñora. 56 espezie ezberdin zenbatu zituen Arberasek bere liburuan, “horietako batzuk nahiko arraroak, arrano arrantzalea kasu”.

Landareen aldetik ere oparoa da dagoen aniztasuna. “Asko aldatu da landareria, urtegiaren ertzeetan batez ere. Baso txikiak eta zuhaitzak ugari dira. Ur-lore eta landareak ere agertu dira. Ia 400 lore espezie identifikatu ditugu, haragijale txiki eta tximeleta ugari ere topatu ditugu. Harrigarria da dagoen aberastasuna”, azaldu du biologoak.

Arrainei dagokionez, ordea, aberastasuna ez da horren handia, gaur egun espezie inbaditzaileak direlako nagusi, zientzialari amurriarraren ustez. “Karpak, perka europarrak eta luzioak dira hedatuena, amurruak eta aingirak ere badauden arren”.



Argazkiak: Enrique Arberas eta Javier Colmenero

Zaintzeko beharra

Hala ere, bioaniztasun hori arriskuan dagoela ohartarazi du Arberasek. "Orain, udan, jende andana bertaratzen da urtegiaren eguna pasatzera, eta zabor asko pilatzen da, ez dago inolako kontrolik".

Horrez gain, horrenbeste jende egoteak bertako animalien egunerokoa aztoratzen duela uste du biologoak. "Konfinamenduan hori oso argi ikusi da: jenderik ez zegoenez animalia askoz gehiago topatu ahal ziren".

Gauzak hala, ingurunea zaindu eta babesteko beharra nabarmendu du, gaur egun duen itxura eta garrantzia mantendu ditzan.

Datuak

ERAIKUNTZA: 1989. urtean hasi ziren urtegia eraikitzen. 1990ean amaitu zuten eta handik bi urtera izan zen inaugurazioa.

ARRO HIDROGRAFIKOAREN ZABALERA: 23 km²

URTEGIAREN ALTUERA: 53 metro

NOLA IRITSI: Arespalditzara bidean, Murgako poligonora iristean, ezkerrean biratu behar da, Izoriako norantzan.



araba álava
foru aldundia diputación foral



LOTURA

garraio erregularrarekin eta herrigune nagusiekin, edoekin kudeaketa egiteko.

EZINBESTEKOA DA AURREZ ERRESERBATZEA
(aurreko eguneko 20:00ak arte)

ERRESERBAK
945 18 20 60
www.araba.eus/alavabus

AIARA

Luxo
Ozeka
Menoio
Beotegi
Kexaa
Menagarai (Jauregi)
Zuhatza
Arespalditza
Agiñiga
Madaria
Salmanton
Maroño
Izoria
Arespalditza
Murga
Olabezar
Etxegoien
Amurrio



AROTZERIA METALIKOA
PERTSIANAK
BEIRAK JARTZEA

Maskuribai industrialdea 18 - Amurrio ARABA
T. 945 034 043 M. 645 708 717



- KIROL PODOLOGIA
- KIRURGIA BERRITZAILEAK
- KIROPODIAK
- OIN-DIABETIKOAK

ABUZTUAN ERE ZABALIK!

KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
audiopodologia@gmail.com

CONSTRUCCIONES SITO UGARTE, S.L

BASERRI BERRITZEAK
TEILATUAK
KANPOALDEAK
BARRUALDEAK
ITXITURAK
PABILOIAK

Unika kalea 6, Aloria (Araba)
Tel.: 658 758 445 / 650 606 682 / 661 136 409
ugartezurimendi@gmail.com

Non jan eta edan

Aguirre

Restergo auzoa 4,
LUIAONDO
945 89 09 41

Aiarako Batzokia

Sagasti 9,
ARESPALDITZA
945 39 92 34

Antojo

Sagasti 3, ARESPALDITZA
945 39 99 00

El Toboso

Sagasti 1, ARESPALDITZA
945 39 90 17

Guzurtegi

La Plazuela z/g, MAROÑO
945 39 94 38

Los Arcos de Quejana

Beotegi errepidea z/g,
KEXAA
945 39 93 20

Oleta

Restergo Kalea 6, LUIAONDO
945 39 35 64

Herri eta auzoetako jaiak, bertan behera

UDALAK JAKINARAZI DU UDAN OSPATZEKOAK ZIREN JAI GUZTIAK BERTAN BEHERA GERATU DIRELA, COVID-19AREN ZABALPENA EKIDITEKO.



Aiarako herri eta auzoetan udan ospatzekoak ziren jai guztiak bertan behera geratu dira, udalak jakinarazi duenez. COVID-19aren zabalpena ekiditea da neurriaren helburua. San Bitoreseko jaiak dagokienez, adibidez, ez dute Gorobelen artzainei egiten zaien omenaldia egingo. Etxaurrengo jaietatik, aldiz, jarduera bakarra mantenduko da: bederatziaurrenaren ekitaldi erlijiosoa.

Non lo egin

Garabilla landetxea

Amurrio-Artziniega errepidea,
A-624, 53,5 kilometroa
LANTENO 616 13 84 49

Los Arcos de Quejana Hotela

Beotegi errepidea z/g, KEXAA
945 39 93 20

Petraenea

Aretxa auzoa 23,
IZORIA
618 80 54 64

Urđinetxe

San Lorezo auzoa z/n
LUIAONDO
670 47 77 27

Zelaikoetxe

Gorbea auzoa 2,
OZEKA
667 40 22 45



INSTALACIONES
RAGA IBARRONDO

Instalazio termikoak instalatu eta mantentzeko enpresa

ITURGINTZA BEROKUNTZA GAS AIRE GIROTUA

☎ Denda 945 30 37 35
Jesús 636 42 80 15
Juanmi 620 63 81 38
Susana 636 77 74 55

🏠 José Madinabeitia, 1
Amurrio
ragaibarrondo@gmail.com
www.ragaibarrondo.com

AMURRIO



JOSUNE IRABIEN MARIGORTA
Amurrioko alkatea



Amurrión, abuztua beti egon da lotuta jaiekin, kalean egotearekin, gozatzearekin eta ondo pasatzearekin. Aurten, egoera, guztiz desberdina da. Erantzukizun sozialaren ondorioz herriko jaiak bertan behera utzi dira. Ez da unea guztion osasuna arriskuan jar dezaketen jende-pilaketa handietarako.

Hala ere, beharrezkoa da kulturak kalean bizirik jarraitzea eta merkataritzak, ostalaritzak eta negozio txikiek egoera zail honetan zutik eustea. Uztailean bezala, “Udako Kultur Tantak” programaren bitartez, kultur jarduera seguruak bultzatzen jarraituko dugu, eskatzen diren segurtasun parametroak zorrotz gordez eta gure herriko artistei lagunduz.

Amaitzeko, amurriotar guztien, gazteen eta helduen erantzukizunerako deia egin nahi dut. Egoera honetatik irteteko modu bakarra gutariko bakoitzaren ekarpena da. Orain inoiz baino gehiago, gure herrikideekin solidario izan behar dugu, eta COVID-19a transmititzea saihesteko ezarri diren neurriak bete. Argi daukat denon artean lortuko dugula.



AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO

Txirridulaz txangoa

Peña Negra, Inordui eta Elexazar

Amurriok aukera ugari ditu hainbat ibilbide gauzatzeko. Horietako asko bide seinaleetan markatuta daude, herriguneko paneletan. Alabaina, badira muino eta tontorren artean lotu daitezkeen zeharkaldiak ere. Maria Menoyo Amurrio Traileko kideak, horietako bat ekarri du mahaigainera.

Bizikletan ibiltzeko arropa erosoak, kasako eta ur botila eramatea gomendatzen ditu Menoyok, "nahiz eta ibilbideko tar-te ugari itzalean egon, udan 2 ur botila eramatea egokia da". Ibilbideaz disfrutatzeke ez da "trebea" izan behar, baina aldapa bat edo beste igotzeko ohitura izan behar da, Menoyoren ustez. Orotara, 27 kilometro ditu gutxi gorabehera itzulia. Tartean, Mariaka, Peña Negra (Aspaltza), Inordui, Jesuri eta Elexazar aztarnategia zeharkatzen ditu. Hala ere, ibilbidea laburtzeko aukera dago.

Mariaka dorrea txangoa

Guk eskultura da ibilaldiaren irteera eta helmuga. Katekesi aretoko biribilgunetik, Nerbioiko parke lineala hartu behar da. "Aurkitzen dugun lehen bidegurutzean eskuinetara hartu erreka gaineko zubia igarotzeko", zehaztu du; Abiagara iristen da horrela. Bide seinale horiekin markatutako "Mariaka dorrea" norabidea hartu behar da segidan, "erreka ezker aldean utzita zuhaitz politik ikusi ahalko ditugu". Egurrezko zubia zeharkatuta, eskuineko bidea jarraitu behar da ondoren, Mariakako dorrea ikusi arte. Alabaina, Mariakara iritsi baino pittin bat lehenago, eskumara jo behar da, beste egurrezko zubi bat topatu arte, "PR eta zembakiz seinaleztatuta dauden zutabeak jarraituko ditugu". Modu horretan, "Aspaltza" bidea bezala adierazitako norabidearekin lotuko dugu txangoa, Menoyoren esanetan. "Ibilbideko

lehen aldapa malkartsura helduko gara, baina lasai hartuta arazorik gabe igo daiteke", dio.

Aspaltza "Peña Negra" eta Jesuri

"Malda bukatutakoan 'Pardio' gisa ezagututako lekura helduko gara". Base-riak eta Gorobeiko bista ederrak ikus daitezke bertatik. Bide nagusitik atera gabe, beste bidegurutze batera ailegatzeko da: "Ezkerrera hartuko dugu. Metro gutxi batzuen buruan, berriro eskuinera joan behar da". Aldapa behera jaitsita, pinudian murgiltzen da bidaidea, "tarte politena da niretzat, gogorrena ere izan daitezkeen arren. Otaka igoera amaituta, arnasa berreskuratzeko bide erraz eta malda beherakoa disfrutatuko dugu, Aspaltza edo Peña Negra norabideari segika. Tontorrera iristeko 3 bide daude, baina ezkerrekoa da errazena". 684 metro ditu gailurrak, eta Gorobeiko panoramika ezin politagoa du.

Aspaltza edo Peña Negratik Jesurira ere bertara daiteke. Hesi baten paretik doa bidea, eta aldapa behera doa zati bat. Alabaina, malda gora bukatutakoan, pista bidea hartu behar da, Elorritxuganera iritsi nahi ez bada. Jesuriko gaina (740 metro) zapaldu ostean, bide beretik itzuli behar da Elexazarreko bidegurutzera heldu arte. Elexazarreko aztarnategitik Inorduirako dago zirkuituko aldaparik gogorrena. Hala ere, oinez 5-7 minutuan osatu daiteke tartea. "Bidezidorrean aurrera, metro gutxiren buruan ailegatuko gara Inorduirako. Oskarbi badago inguru-neaz gozatzeko puntu ezin hobea da", azpimarratu du Menoyok. Tontoretatik jaitsita, lehen bidezidorrean eskumara egin behar da San Rokera iristeko. Bertatik Bañuetara hurbil daiteke, eta hala bizikleta garbitu, ur hornidura gunea baitago. Guztira, 2,5-3 orduko ibilbidea da, sasoiaren eta geldialdi kopuruaren arabera betiere.



Guk eskulturatik edo herriko edozein gunetik abiatu daiteke txangoa. Parke linealaren hasierako bidea hartuta, lehen bidegurutzean, (Iparralde auzoaren parean) eskumako bidexka hartu behar da, zubia igaro eta Abiagara auzora heltzeko. Bertatik Mariakarako seinalea segi.



Irudian, Pardio baserria. Pista jarraituta, pinudiak lagun ailegatuko da bidaidea Aspaltza edo Peña Negra.



Mariakara heldu aurreko azken bidegurutzean, eskumako bidea hartu behar da. Aiaraldea.eus-en ibilbidearen argazki erreportaje osoa dago, bidegurutzeak barne. 5. ibilbide gisa markatua dago "Pardio" ingurua. Aspaltzako seinalea jarraitu.



Aspaltzatik Jesurirantz doan mendi pista paisaia zinez politak erakusten ditu.



Aspaltza gainak 684 metro ditu, eta Gorobel zein Amurrio ikusten dira bertatik. Handik Amurriora itzuli daiteke, edota Orozkoko Jesuri gailurrerako bidea segi. Nahi izanez gero, Elorritxuganera ere hurbildu daiteke.



ARGAZKI ERREPORTAJEA



Aspaltzatik aurrera eginda, harri-asfaltoz osatutako pistarekin egiten da topo. Bide horri segika Elorritxuganera iristen da, baina Jesurira joateko hurrengo argazkiko pista estuari heldu behar zaio.

Jesurira igotzeko, eta bertatik Amurriorantz itzultzeko, pista "maldatsu" bezain erraz hau baliatuko dugu.



Jesuritik Peña Negra edo Aspaltza zein bestelako tontorren ikuspegia asko goza daiteke. Ibilbidean Aspaltzako seinalea utzitako puntu berera bueltatu behar da Elexazar aztarnategira bitarteko etapari heltzeko.

Jesurira hurbiltzeko baliatutako bide bera errepikatu behar da, kontrako norantzan.



ZUFOIN
PODOLOGIA LAUDIO

- KIROL PODOLOGIA
- KIRURGIA BERRITZAILEAK
- KIROPODIAK
- OIN-DIABETIKOA

ABUZTUAN ERE ZABALIK!

KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

G · A · R · A · Y

AHOLKULARITZA - HIGIEZINEN AGENTZIA - ASEGURUAK

G · A · R · A · Y ASESORIA Y SEGUROS



Elexondo, 15
AMURRIO
Tel.: 618 28 24 27
asesoriaysegurosgaray@hotmail.com



Elexazarren indusketa ugari egin dira. Amurriotik oinez zein bizikletaz bertaratzeko, bi-deak markatuta daude.



Asfaltza edota Peña Negrara iristeko, aurrez jaitsitako bidea igo behar da. Modu horretan, Elexazarreko aztarnategiarekin lotzeko seinale edo puntuarekin bat egingo du txirrindulariak.



neumaticos
CAMARERO, S.L.



- Marka guztietako neumatikoak
- Mekanika arina
- Motor mekanika:
 - > Lozagia
 - > Banaketa uhala
 - > Kulata-juntura...

Zumalakarregi etorbidea 66. LAUDIO 94 672 06 81
Maskuribai industrialdea, pab. C-01- AMURRIO 94 652 62 72



Aialur
Ingeniería de montes,
topografía y medio ambiente

25
urte
zurekin

Tel. 945 89 02 56 Fax. 945 89 23 24

- > Obrazko topografia
- > Lur-sailtako neurketak
- > Mugarriztatze eta mugaketak
- > Ingurune inpaktuen ebaluazioak
- > Ingurune proiektuak
- > Baso jasagarrirentzako planak
- > Proiektu eta aktibitate lizentziak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan
- > Pinudien tasazioa
- > Balorazio eta tasazioak

Maskuribai Industrialdea, Pab. B-03/ B-10
AMURRIO (Araba) aialur@aialur.com



URAGORRI S.L

ITURGINTZA - BEROKUNTZA
GAS - AEROTERMIA

Dionisio Aldama 3, 14.lokala
01470 Amurrio
adm.uragorri@gmail.com

Tel: 945 041 395
671 624 250
654 056 953

ARGAZKI ERREPORTAJEA



Elexazar aztarnategian indusketa ugari egin izan dira. Handik, Inordui zapaltzea izango da azken erronka. Elexazarretik aurrera, aldapatxo gogorra eta gero, pista zabala gurutzatu behar da Inorduiara heltzeko.

Inorduitik San Rokeraino iristen da jaitsiera, baina Bizikleta garbitzeko Bañuetan garbiketara puntua



Datuak

DENBORA: 3,5 ordu **LUZERA:** 27 kilometro

IBILBIDEA: Guk eskultura, Abiaga, Mariaka, Aspaltza, Jesuri, Elexazar aztarnategia, Inordui, San Roke, Bañueta, Guk parkea



SUMINISTROS DE GASOLEO

GOIKOMENDI

GASOLIO HORNIKETA
orokorra, nekazaritza eta berogailua

**Etxez etxeko
zerbitzua**

AMURRIO 945 89 04 09 goikomendi@yahoo.es



AROTZERIA METALIKOA
PERTSIANAK
BEIRAK JARTZEA

Maskuribai industrialdea 18 - Amurrio ARABA
T. 945 034 043 M. 645 708 717

ESKOLARAKO
dena prest?

PERTSONALIZATU ZUREA



sorpresaopariak | www.sorpresa.eus | Maskuribai Ind. Z-10 (Adigrafik) · AMURRIO

na astiro joan. Herriguneraino ez dago galbiderik.
dago.



ITURGINTZA BEROKUNTZA ETA ERABERRITZEAK



Tel. 679 52 17 79
La Antigua Pasealekua - URDUÑA

Zure gorputza errespetatzen dugu tratamendu ez-inbaditzaileekin, BIO eta ECO kosmetikarekin
Gorputz- eta aurpegi-tratamenduak
Diatermia
Manikura Pedikura
Diodo laserra

KOLCOORE
Centro de Estética

Tel.: 605 747 229 Iturralde Kalea 7 - Amurrio

Electricidad Albizua, S.L.

Tel. **608 87 05 13**
945 89 07 02

Aldaiturriaga poligonoa, E2
AMURRIO

IRRINTZI

euskal jantzi denda

Askotariko maskarak

📍 Batzalarrin Kalea, 9 Laudio ☎ 944 072 215
📱 Irrintzi, euskal jantzi denda

**Instituto Médico
Veterinario de Álava**

VETER | SALUD

**Txertoak | Kotsultak
Prebentzio-medikuntza
Kirurgiak | Ospitalizazioa
Etxez etxeko bisitak**

Maskuribai poligonoa Z9 - Z11
01470 Amurrio (Araba)
Tel.: 945 028 910 - 945 393 477
Larrialdia: 656 788 800
www.imva.es

ARozTEGIA EBANISTERIA

Enkarguzko altzariak **Sukaldeko eta komuneko altzariak**
Horma-armairuak **Instalazio komertzialak**
Barruko eta kanpoko arotzeria **Tarimak jartzea**
Parket flotatzailea **etab.**

Tel. 945 39 38 80 caribaiondo@hotmail.com
Aldaiturriaga pol., 2. zenbakia AMURRIO

Kobatxiki

Tertangako harribitxia

Amurrioko herrigunetik urrun badago ere, ezin da ahaztu Arrastaria haranako biztanleak ere amurrioa-rrak direla, eta bertako paisaia lasaiak ere interesgarriak direla. Izan ere, Gorobel mendilerroako hainbat sarrera bertan daude. Horieta bide batzuk ez dira derrigorrez mendikatearen tontorrean amaitzen, baina zenbait altxor gordezen dute. Esaterako, Koba Txiki.

Leize horrek, berez, ez du balio espeleologiko aparta, baina egin behar den bidea aitzakia paregabea izan daiteke eskualdea hobeto ezagutzeko.


Hasteko, Tertangara heldu beharra dago. Aiaraldea batzuek ez dute jakingo zehazki non dagoen, baina heltzeko ez da GPS tresna piztu behar. Izan ere, Urduñara jo eta saihebidia zeharkatzea nahikoa da. Burgoseko errepidea jarraitu ostean eta Urduñako mendatearen aldapak hasi baino lehen, kartel batek adierazten du 850 metrora dagoela herri arabar lasai hori.

Haraino joateko autoa erabiliz gero, tertangarren aholkua da ahalik eta lasterren aparkatzea ibilgailua, hau da, lehenengo edukiontzien alboan dagoen gunela. Horrek etxeen artean trafikoa egotea aurreztuko die bertakoei zein bisitariari. Izan ere, leku gutxi dago auto bat uzteko, herria txikia baita.

Behin arazo hori konponduta, ibilbideari ekin behar zaio. Izatez, paseoa ez da luzea, baina, nola ez, gomendagarria da ura eramatea, harrien artean ibiltzeko oinetako egokiak janztea, eta, esku finak izanez gero, eskularru batzuk baliatzea, soka bat edo harrietara heltzeko, minik hartu gabe. Edonola ere, azken hori ez da ezinbestekoa.

Baina itzuli gaitzen oinezkoentzako abiapuntura. Ibilgailua utzi eta gero, Tertanga zeharkatu behar da. Ez da trabesia handia eta bide nagusia jarraitzea nahikoa da. Eliza, etxe eta baserrien gunek atzean uzteak mendiko bidera eramaten du mendizalea, ezkerrean eta gorantz. Pista zabala eta argia da jarraitu behar dena, eta basora jotzen du. Ezkerrean ikus daitezke Tertanga bide horretatik, eta larreen artean doa, bi zuhaitz lerrok babestuta, bat eskuinean eta bestea ezkerrean. Ehunka metro gutxi egin ostean, metalezko hesi batekin topo egingo dute ibiltariak. Soka batek matentzen du itxita, gehienbat, abereen mugimendua mugatzeko.

Ondorioz, hesia erabili eta gero, errespetuzkoa da zegoen moduan uztea eta ixtea. Adeitasunez hori egin eta gero, pista aurrera jarraitzen du. Ibilbidea aski argia da eta ez du inolako zailtasunik sortzen jarraitzeak, baina beherala ikusiko du bisitariak zergatik den paseoa uda garaikoa. Izan ere, hesia gandi-



Juan Manuel Pérez de Ana

tu eta gutxira, ubidea zeharkatu beharra dago. Jakina, hilabete lehorretan ariketak ez du arazorik sortzen, ez baitago urik, baina garai euritsuetan oinak bustitzeko aukera asko daude.

Une horretatik aurrera, ibaiaren ertzaren ezkerrean egongo da bisitaria, eta hori erreferentzia baliagarria da.

Patxadaz hartuta, 20 minutuko paseoa du ibiltariak aurretik. Zeharkaldi benetan gustagarria da, nahiko laua eta Gorobelgo magalean dagoen baso politak lagunduta. Nekez topatuko du mendizaleak pinuren bat eta, aldiz, bestelako espezieak agertuko dira han-hemenka. Tarte lasai hori betetzeko pista nagusia zapaldu behar da, besterik gabe. Ez du inolako erronkarik suposatzen. Hori bai, uneren batean mendizaleak nabaritutako gauzak aldatzen direla: bat-batean malda bat agertuko da aurrean, une erabakigarria izango da. Alde batetik, ibilbidea gaiztotzen hasiko delako. Bestetik, bidegurutzak dagoelako malda amaitzen denean. Zehazki, aldaparen amaieran bideak

bat egiten du ibaiaren ubidearekin. Ubidea gorantza jarraituz gero Koba Handira jo daiteke, baina leize horrek sarrera zailagoa du. Ordea, Koba Txikira heltzeko, ibaiaren ibilbidea gurutatu beharra dago, eta Gorobeletik jaisten den beste ibai adarrera joan behar da.

Bi modu daude horretarako. Basoaren aldapa amaitu baino lehen dagoen hesi arrastoaren alboan -bakarrik alanbre apur bat eta makil bat geratzen dira- topatu daitezkeen bideska hartu edo, behin ubidera helduta, eskuinera dagoen beste bideska -ibaiko ibilbidearen beste ertzean- hautatu.

Lehenengo bideska aukeratzen bada, Koba Txikitik jaisten den urak sortutako ubidea igo behar da, batzutan harri artean "eskalatuta". Bidean, kate bat eta soka bat erabili beharko du ibiltariak.


Beste bideska hautatuta, harri artean joan beharko da ere mendizalea, baina zati handi bat aurreztuko du basoaren eta belarren artean.

Izan ere, hau da txangoaren alderik gogorrena -eta kitzikagarriena ere-. Minutu batzuk gora eginda, azkenik, bisitariek Koba Txikia topatuko dute. Sarreran harri handia gaindituko dute, eta gero 20 metroz barneratu daitezke arazorik gabe, aintzat hartuta, hori bai, gero putzutxoa topatuko dutela eta busti daitezkeela.

Urduñako zenbait espeleologoren aholkua da, barrura sartu nahi izanez gero, tresna aproposak eramatea -ur botak, kaskoa, eskularruak, argia...- eta gutxiengo hori beteta, barruan gozatzea. Eskarmentua duten tokiko espeleologoek uste dut leku aproposa dela hasiberrientzat, blokeen artean eta pasarte estuagoren batean jolasteko. Esplorazioak norberak nahiago duena irautu dezake, 40 minutu azkar eginda edo pare bat ordu tokiko berezitasunei erreparatuta. Horien artean dago saguzar kolonia, eta, nola ez, errespetatu behar da, eurak baitira bertako benetako biztanleak. Askotan, animaliak leizeko azken galerian daude eta han altuera txikiagoa da.

Behin Koba Txikitik aterata, egindako bidea errepikatu daiteke, baina kontrako norabidean. Berez, jaitsierari ekin baino lehen, ideia ona izan daiteke hamaiketakoa leizearen sarreran egitea eta Arrastariako haranaren zein Aiaraldeko zati handi baten paisaiatz gozatzea.

Txango osoa ez da oso luzea eta 3 orduetan, norberaren erritmoaren arabera, amaitu daiteke.



Juan Manuel Pérez de Ana

BAIMENDUN INSTALATZAILEA

Iturgintza - Berogailua - Gasa - Aire girotua



David Castro

- **ITURGINTZA INSTALATZAILEA**
(Industria ministerioak baimenduta)
- **GAS INDUSTRIA AGIRIA**
ETA RITE ZIURTAGIRIA

- Galdaren eta gas berogailuen instalatzailea
- Gasoil galdaren instalatzailea
- Termo elektrikoen instalatzailea
- Berogailu eta zoru erradiatzaileen instalatzailea

- Karabana eta auto-karabanen gas instalatzailea
- Bainuontzien aldatzea
(dutxa platerak)
- Desataskoak eta ihesak

45 URTE
baino
gehiagoko
esperientzia

Delika

Nerbioiko jaiotzaren bide “ezkutua”

Nerbioiko ur-jauzia da Gorobel mendilerroko puntu ikusgarrienetako bat. Horren lekuko da inguruak erakartzen duen turista andana. Paseo erraza egiteko txoko ezin hobea da, ezbairik gabe. Ur-jauzia goitik edo behetik bisita daiteke.

Urduñako portua igota, Burgoseko lurretan barrena heltzen da bisitaria Nerbioiko ur-jauziaren ibilbidearen ohiko abiapuntura. Aparkalekutik sorbururaino 2 kilometroko pista bidea dago. Gainera, Santiago mendirantz edo begiralekurantz luzatu daiteke bidea. Balkoi batetik bestera iristeko, 45 minutu eskas behar dira. Amildegia ertzetik doa

bidexka, baina seinaleztatutako eremua izanik, arrisku guneak ondo identifikatuta daude, eta ertzetara ez hurbiltzeko oharrak daude zeharkaldian zehar. Halaber, otsoen bizitoki izan da eremua. Hargatik, nola Santiagoko zirkuituan hala Nerbioiko iturburuarenean, otsoak harrapatzeko baliatzen ziren zuloak begizta daitezke.

Delikatik jaiotzaren magalera

Bestelakoa da Delikak eskaintzen duen ikuspegia. Urduña hiriko bigarren biribilgunean hartzen da bertarako errepi-dea; zezen-plazaren parean. Ibilgailua "infernu" izenez ezagunagoa den atse-

den lekuan utzi daiteke. Gainera, jatetxe-taberna bat dauka, ibilaldiaren hasieran zein amaieran indarberritzeko txoko berezia. Izan ere, erreken ertzean itzal eta zelai freskoak ditu.


Hain zuzen, tabernaren aurretik abiatzen da ur-jauzirako txangoa. Errekaren ertzetik, salto txiki eta ertainen lekuko da pista. Familia edo lagun artean gauzatzeko txango erraza da, zailtasunik gabea. Gutxi gorabehera, ordubeteko bidaia da. Azken txanpa harri artean egin behar da, eta horrek xarma berezia ematen dio helmuga argazkiari. Txorrotaren azpira helduta, bide beretik itzultzen da Delikaraino.



Delika herriko Infernu jatetxetik abiatzen da ibilbidea. Urduñatik hurbildu behar gara. Familian edo lagun artean egiteko txango erraza bezain polita da.



Ibilbidean barrena begiratokiak edota atsedena hartzeko guneak daude. Errekaren ertzetik doa etengabe bidea. Ondorioz, ez du galbiderik. Hala ere, azalpen panelak daude.





Arabako Foru Aldundiak oraintsu atondu du bidea. Horren adibide da Delikako ur-jauzi edo putzuak ikusteko eraikitako balkoia.

Urari segika, Nerbioiko jaiotzaren magalera iristen da. Azken txanpa erreka harrien gainetik egin behar da.



Datuak

DENBORA: 180 minutu

LUZERA: 4 km

OHARRA: Delikako erreka gorputza freskatzeko putzuak ditu. Bestalde, Delikan lo egiteko zein ibilgailuentzako aparkaleku gunea atondu dute berriki.

Ganzabal Garraioak

**PINU GARRAIOA
PAGO ETA HARITZ
EGURRA**



Tel. 679 96 14 21 Félix Murga, 14-1ª / AMURRIO



ARESKETA ikastola
Zuek ikusteko irrikitan!

Aresketa auzoa, 2 - OHO Amurrio (Arabal) www.aresketatikastola.es 915590360



* Iraila 2019an Araba Itzularaz elkarrekin zela eta antolatutako "50men leialteari" sortutakoa

A Asesoría Aiala

**Fiskala - Kontablea
Laborala - Aseguruak**

Enpresen eta autonomoen
aholkularitza

> Iturralde, 1 - AMURRIO
Tel.: 945 890 450
Fax. 945 890 001
e-mail: aiala@asesoriaaiala.com

IR

INSTALACIONES
RAGA IBARRONDO

Instalazio termikoak instalatu eta mantentzeko enpresa

ITURGINTZA BEROKUNTZA GAS AIRE GIROTUA

☎ Denda 945 30 37 35
Jesús 636 42 80 15
Juanmi 620 63 81 38
Susana 636 77 74 55

🏠 José Madinabeitia, 1
Amurrio
ragaibarrondo@gmail.com
www.ragaibarrondo.com

Hiru eguneko egitaraua jai herrikoian alde

Hiru eguneko egitaraua aurkeztu du Jai Herrikoien Aldeko Batzordeak, jaiak ordezkatzeko hainbat ekintzarekin. Abuztuaren 14an piztuko dute programari hasiera

emateko suziria. Basilio Garcia Mayo udaltzain ohia arduratuko da horretaz. Antolatzaileek nabarmendu dute hainbat segurtasun neurri hartuko dituztela koronabirusaren transmisioa ekiditeko.

08.14
OSTIRALA

12:00 Kuadrillen poteoa
Kuadrilla bakoitza bere aldetik

14:30 Kuadrilla bazkaria(k)
Kuadrilla bakoitza bere aldetik

20:00 Errepresaliatuen aldeko giza-katea

13:30 Kuadrillen txupinak

15:30 Bingo musikatua

20:30 Parrillada herrikoia

13:45 Pregoia eta txupin zentrala

17:00 Kuadrillen arteko jolas digitala

08.15
LARUNBATA

11:30 Paella Ichiaketa

14:30 Paellen bazkaria

15:30 Jone Urruelaren eta Ostaberen kontzertuak

23:30 Akelarrea
Otsemeak taldearen eskutik

08.16
IGANDEA

Kuadrillak eta gazteak mozorrotuta egongo dira

13:00 Truc Tox Ta Kittoren kalejira

18:30 Tortilla Txapelketa eta, jarraian, tortillen afaria

23:15 Cuatro Bancos taldearen kontzertua




Carrefour
express

EGIN ZAITEZ BAZKIDE 

DASTATU GURE PRODUKTU FRESKOA

- HARATEGIA
- OKINDEGIA
- FRUTADENDA

ORDUTEGIA:
astehenetik ostiralera 9:00etatik 20:30ak arte eta
larunbatak 9:00etatik 14:00ak arte
Dionisio Aldama, 7 AMURRIO · T. 945 89 10 50

Ekintza ugari, jaien ordeaz

Kultura programa oparoa antolatuta du Amurrioko Udak abuztu eta irailerako, ohiko sanrokeak ordezkatzeko. "Udako kultur tantak" izena jarri diote dinamikari. Hainbat diziplinako ikuskizunak eskainiko dituzte herriko hainbat txokotan. Gainera, Amurrio Got Talent lehiaketa antolatu du tokiko erakundeak. Parte hartzaileek bideo bat grabatu

eta bidali beharko dute abuztuaren 15a baino lehen, Whatsapp bitartez 665 712 802 zenbakira edo amurriogottalent2020@gmail.com helbidera. Amurrio.eus atarian topatu daiteke informazio gehiago. Ekitaldiek aforo mugatua izango dute eta ikusleek eserita egon beharko dute nahitaez, udalak zehaztu duenez.

08.08 LARUNBATA

20:00 "Aukerak/Caminos"
The Funes troupe taldearen
antzerkia Juan Urrutia plazan

08.09 IGANDEA

20:00 "Bach en el espejo"
Conductus Ensemble
Kontzertua Amurrio Antzokian

08.12 ASTEAZKENA

10:00 Baserriko produktuen azoka
Juan Urrutia plaza

08.13 OSTEGUNA

19:00 Musika Eskolako folk taldea
Villa Fen

08.14 OSTIRALA

20:00 "Freecool", Tio Teroren Semeak
Ikuskizuna Juan Urrutia plazan

21:00 Carl I&I + Aiaraldeko Soinu Sistema
Parkean

08.15 LARUNBATA

20:30 "Ez da kasualitatea"
Bertso saioa Juan Urrutia plazan

22:00 "Su a Feu" Deabru Beltzaren ikuskizuna
Juan Urrutia parkean



08.16 IGANDEA

11:30 Amurrioko Txistuzaleak

20:00 "Turistreando"
Antzerkia euskaraz, Juan Urrutia plazan

21:00 Chiki Lora
Kontzertua parkean

08.17 ASTELEHENA

20:00 "Al otro lado" Zanguango
Antzerkia Juan Urrutia plazan

21:00 Viernes 6 taldea
Kontzertua parkean



08.22 LARUNBATA

20:00-22:00 Xaibor
Disco ibiltaria

09.07 ASTELEHENA

Magialdiaraba
Magia tailerrak, animazioa eta ikuskizuna

09.18 OSTIRALA

Blues Morning Singers
Kontzertua parkean

Non jan eta edan

Abiaga Jatetxea

Aparkaleku pribatua, kanpoko terraza, lorategiak eta bista ederrak

Abiaga 7, AMURRIO 945 39 36 18



Akeita Pizzak

Mesón de Armuru z/g, AMURRIO 945 89 31 45

Alanbike

Tortilla eta pintxoak. Pintxopotea ostegun eta ostiraletan, larunbatetan pikoteoa

Dionisio Aldama 1, AMURRIO 945 89 31 45



Albizabal

Ayala etorbidea 10, AMURRIO 945 06 88 90

Aldama Jatetxea

Dionisio Aldama 12, AMURRIO 945 06 66 46

Aretxondo

Zabalibar 1, AMURRIO 945 39 35 95

Arkune

Bañuetaibar 6, AMURRIO 945 03 67 83

Atxubi

Aiara etorbidea 2, AMURRIO 945 89 08 51

Avenida

Aiara etorbidea 3, AMURRIO 945 89 03 65

Ayala

Aiara etorbidea 12, AMURRIO 945 39 33 79

Ayala Hostal

Aiara etorbidea 12, AMURRIO 945 89 04 52

Amurrioko Batzokia

Frontoi kalea 4, AMURRIO 945 10 13 60

Bideko Jatetxea

Bideko auzoa z/g, AMURRIO 945 89 06 33

Cola de Gallo

Elexondo kalea 30, AMURRIO 945 89 22 86

Company

Lucas Rey 3, AMURRIO 945 89 36 84

Dani Berria

Saratxo 12, SARATXO 945 89 13 67

El Crucero

Aldai 2, AMURRIO 945 39 35 48

El Infierno

Delika 69, DELIKA 945 38 37 96

El Refor

Maskuribai 21, AMURRIO 945 39 33 14

Etxe-Zuri

Jauregiko Landa 3, AMURRIO 945 06 62 36

Frontón

Frontoi 7, AMURRIO 945 89 03 77

Garrastatxuko txosna

Garrastatxu, BARANBIO 653 74 16 25

El Rinconcito

Pintxoak, futbola, rabak, pintxopotea ostegun eta ostiraletan. Terraza oso handia.

Larrinaga 1, AMURRIO 609 38 50 12



Guk

Iturralde 7, AMURRIO 671 42 46 86

Iarritu Sadargotegia

Lezama, AMURRIO 945 38 61 31

Igerilekuak

Abiaga, AMURRIO 945 89 12 62

Iturrialde DBH

Etxegoien 14, AMURRIO 945 06 45 04

Kantoi

Iturralde 5, AMURRIO 686 702 049

Kebab K2

Lucas Rey 5, AMURRIO 945 89 16 35

Kili Berria

Mendiko 2, AMURRIO 945 06 57 15

Kuskumendi

Dionisio Aldama 1, AMURRIO
945 77 21 60

La Barrika Blanca

Elexondo 24, AMURRIO
696 66 28 95

La Bodeguilla

Elexondo 2, AMURRIO
627 75 97 57

La Terraza

Elexondo 13, AMURRIO
945 89 22 13

Landako

Boriñaur plaza 9, AMURRIO
945 39 30 52

Nagusi

Intxardui 2 behe, AMURRIO
667 91 90 15

Okeluri

Berganza auzoa 2, AMURRIO
945 89 20 50

Patxi 11

Landako 21, AMURRIO
945 06 62 78

Rubik

Boriñaur plaza 1, AMURRIO
945 89 07 20

Ruperto

San Roke 15, AMURRIO
945 89 09 49

Sabbarri

Juan de Aranoa 1, AMURRIO
945 89 17 80

Elexondo joko-aretoa

Larrinaga 2, AMURRIO
945 77 82 11

Toki-eder

Bañuetaibar 11, AMURRIO
945 89 23 84

Txokogorri

Iturralde 1, AMURRIO
945 89 24 37

Txiribita

Armurulanda plaza 2, AMURRIO
945 36 97 77

Txokano

Mendiko 49, AMURRIO
945 89 18 17

Txotis

Frontoi kalea 4, AMURRIO
661 41 51 08

Villa Florida

Lucas Rey 8, AMURRIO
945 89 19 99

Aldama Hotela

Dionisio Aldama 12, AMURRIO
945 06 66 46

Iruaritz

LEZAMA 945 89 26 76

Lekanderi

Lekamaña 16, LEKAMAÑA
630 62 98 23

Mendieta etxea

Mendieta auzoa 70,
MENAGARAI 945 39 94 47

Rincón de Aiara

Mendieta auzoa 75,
MENAGARAI
945 39 90 20

Salto del Nervión

Delika 37, AMURRIO
665 72 71 70

Sati Berri

La Mota z/g, AMURRIO
688 74 45 79

Saiaritz landa hotela

San Roke 12, AMURRIO
945 89 23 64

Tertangako Etxea

Tertanga, AMURRIO
944 32 04 45

Usko

Lezama 23, AMURRIO
619 46 63 43

Non lo egin

Ayala ostatua

Ayala 2, AMURRIO
945 89 04 52

Alanbike

Café-Bar

Dionisio Aldama · T 945 89 31 45 · Amurrio

El Rinconcito

Larrinaga 1,
AMURRIO



Abiaga

JATETXEA

Eguneko menua, ezkontzak, jaunartzeak,
ospakizunak, taldeentzako menu bereziak...



WWW.ABIAGAJATETXEA.COM

TEL. 945 393 618

INFO@ABIAGAJATETXEA.COM



Garaje Yas

Iritxusi, 1 - Amurrio
Tel.: 945 890 334
www.garajeyas.net

Golf 8
Zure bizitza
Zure Golf



Zortzi belaunaldi, bizitza oso bat.



ALUVENT


PVC ETA ALUMINIO AROZTEGIA

aluvent.omar@hotmail.com

ARDATZ ALDAGARRIKO BURDINERIA ALDAKETA
PERTSIANA KONPONKETAK

MURGA INDUSTRIALDEA • 678 25 02 90

LAUDIO



ANDER AÑIBARRO MAESTRE
Laudioko alkatea

Uda, Laudion, eta zehazki, abuztua, beti izan da mugarri handia guztiontzat: "Gure sanrokeak hemen daude". Aurten, zoritxarrez, bizi dugun osasun-egoera dela eta, ez da posible izango herriko aste berezia ospatzea. Oso erabaki zaila da gure jaiak bertan behera uztea, baina auzotarren osasuna edozein jai-jardueraren gainetik egon behar da beti.

Hala ere, "Kultuda - Laudio zabalik" izeneko programa diseinatu dugu. Ekainetik urrira arte, formatu txikiko kultur ekitaldi eta ekimen ugari egongo dira, eta udan arintzen lagunduko digute, herriko elkarten lankidetzari esker. Horrela, gure herriaz eta bertako kaleen xarmaz gozatu ahal izango dugu, osasun-agintariek ezarritako segurtasun-neurriak errespetatzen ditugun bitartean.

Une zailak bizi ditugu, horregatik, oso garrantzitsua da audioarrok gure alde jartzea, ezohiko egoera hau lehenbailehen buka dadin. Horretarako, ezinbestekoa da arduratsua izatea, une oro maskarak erabiltzea, pertsonen arteko distantziak errespetatzea eta eskuak maiz garbitzea.

Guztionean lortuko dugu hemendik irtetea. Ziur nago.



**LAUDIO
UDALA**
AYUNTAMIENTO
DE LLODIO

Ermualde natura eta ondarez betetako “parke tematikoa”

Ermualde “parke tematiko” baten modukoa da, Sergio Escibanoren arabera. Arkeologo audioarraren hitzetan, mota askotako harribitxiak topatu daitezke zonalde horretan, oso urrutira joan gabe.

Berarekin igo gara. Hainbat bide daude Ermualdera iristeko, baina Errekabidetakoa probatzea gomendatu digu (Ugartetik gora doana, aldapa hasi baino lehen eskumara desbideratuta). “Biderik politenetako bat da, eta berriua dago gainera”.

Ermu Andra Mariko santutegira iritsi baino lehen topatuko ditugu zonaldeko lehen harribitxiak: karobia edota burdin bila ingelesek XIX. mendean eginiko zu-

loa kasu. Ermualdeko paisaia oso naturala dirudien arren, gizakiagatik erabat eraldatua dago. “Gaztainondoak, adibidez, gaztainak ustiatzeko landatu ziren”, azaldu du Escibanok, “Europa osora eramaten ziren hemengo gaztainak, Ingaltarrara edota Herbeheretara kasu”.

Felix Mugurutza ikerlariak asko aztertu du gaia. Bere hitzetan, Aiaraldeko gaztainak ez ziren elikagai gisa soilik erabiltzen: “azalak arropa tindatzeko balio zuten”. Horregatik zuen horrenbesteko garrantzia produktuak Europan.

Behin santutegira iritsita, hainbat aukera ditugu. Kafe edo mokadu bat hartu dezakegu aterpean dagoen jatetxean.

Oraindik indarrak baditugu, ordea, gora jo dezakegu, Guda Zibileko Burdin heziaren aztarnak ikustera. Ibilbide osoa seinaleztatuta dago, eta aztarna ikusgarri andana topatu daitezke, lubaki zein metrailadore-hobiak kasu. Bidean aurrera joanda, Kastillozarreko tontorreraino iritsi gaitzke, karlisten gotorleku baten aztarnak ikusteko. Ondoren, berriz jaisterakoan, bidetik desbideratu gaitzke, San Antonioko guruztokitik gertu dagoen elurzuloraino.

Aipatutakoak zonaldean topatu daitezkeen gauza guztien lagin bat baino ez dira. Irakurleari dagokio orain gainontzeak bilatzea.



Hainbat modu daude Ermualdera igotzeko, baina biderik politenetako bat Errekabidetakoa da (Santa Luziako kilometro bertikala egiteko baliatzen dena). Gainera, nahiko berriua dago.




Bidean gora joanez zulo batekin egingo dugu topo. Antza, ingelesek egin zuten XIX. mendean, burdina ustiatzeko asmotan.



Karobia da, bidean topatuko dugu beste harribitxietako bat. Karea zen Eramualden ekoizten zen produktuetako bat.

Gaztainen ekoizpenak pisu handia izan zuen Ermualden. Ingalaterrara eta Europako beste hainbat tokitara esportatzen ziren. Oraindik ikusi daitezke hainbat kirikiño-hesi, fruitu horiek biltzeko baliatzen zirenak.



RPS 101/19

GO
enea
ODONTOLOGIA

Kalitatezko eta konfiantzazko odontologia, zugandik hurbil

Araba kalea 2, Laudio
944 200 310 • 690 341 413

neumaticos CAMARERO, S.L.

- Marka guztietako neumatikoak
- Mekanika arina
- Motor mekanika:
 - > Lozagia
 - > Banaketa uhala
 - > Kulata-juntura...

Zumalakarregi etorbidea 66. LAUDIO 94 672 06 81
Maskuribai industrialdea, pab. C-01- AMURRIO 94 652 62 72

Maskarekin betaurrekoak lurruntzen zaizkizu?

ESAN AGUR LURRUNARI

Hobeto ikusi, hobeto bizi

Orain 2x1 eskaintza!

Elexondo 1, Amurrio T. 945 892 422
 Batzalarri 3, Laudio T. 944 042 286
 Barria Kalea 5, Urduña T. 945 384

www.luynadooticos.com

TOÑI
ARRAINDEGIA

jai zoriontsuak!

Laudioko Abastos Azokan
toniarraindegia@gmail.com
621 21 65 98 • 650 42 13 51

ARGAZKI ERREPORTAJEA

Ermu Andra Mariko Santutegia da zonaldearen bihotza. Azken urteetan hainbat indusketa egin dira eraikinaren barruan eta inguruetan, eta Erdi Aroko hilerri baten eta bestelako eraikin batzuen arrastoak topatu dituzte.



Bidea jarraituz Kastillozar mendiaren tontorrera iritsi gaitzke. Bertan karlisten gotorleku baten arrastoak ikus daitezke, azpiegitura bastezko zegoen zuloa.



Ermualdetik gora joanda, Burdin hesia zegoen tokiraino iritsi gaitzke. Lubakien, metrailadore-hobien eta bestelako azpiegituren arrastoak topatu daitezke bidean barrena.



BAIMENDUN INSTALATZAILEA

Iturgintza - Berogailua - Gasa - Aire girotua



David Castro

45 URTE
baino
gehiagoko
esperientzia

- ITURGINTZA INSTALATZAILEA (Industria ministerioak baimenduta)
- GAS INDUSTRIA AGIRIA ETA RITE ZIURTAGIRIA
- Galdaren eta gas berogailuen instalatzailea
- Gasoil galdaren instalatzailea
- Termo elektrikoen instalatzailea
- Berogailu eta zoru erradiatzaileen instalatzailea
- Karabana eta auto-karabanen gas instalatzailea
- Bainuontzien aldatzea (dutxa platerak)
- Desataskoak eta ihesak

Elexondo 24, Amurrio (Araba) · kaxyus@hotmail.com 676 02 33 93 - 685 26 69 31

www.fontaneriacaastro.com



2020-21
matrikulazio
epea
irailetik
aurrera
zabalik



- Ukelelea
- Bateria
- Pianoa
- Gitarra
- Baxua
- Kantu klasea

Ikaskin 5, Laudioko industrialdea (Laudio) Gardeako tren geltoki alboan · 699 88 35 63



Garai bero hauetan bitxia suertatu daitekeen arren, elurraren ustiaketak ere izan zuen garrantzia Ermualden. Horren seinale da San Antonioko guruztokitik gertu topatu daitekeen elurzuloa.

Txangoarekin amaitzeko, pote bat edo mokadua har dezakegu Eramualdeko taberna jatetxean, indarrak berritzeko.



ZUFUOIN
 PODOLOGIA LAUDIO

- KIROL PODOLOGIA
- KIRURGIA BERRITZAILEAK
- KIROPODIAK
- OIN-DIABETIKOA

ABUZTUAN ERE ZABALIK!

KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
 94 672 52 57
 laudiopodologia@gmail.com

BASARTE, S.L.
 ERAIKUNTZAK ETA
 HONDEAKETAK

**OBRA BERRIA
 BERRITZEAK**

35 urte
 baino
 gehiagoko
 esperientzia

Zeramika eraikuntza
 LAUDIO/ basarteconst@telefonica.net
 94 672 12 58 · 945 89 20 19 · 609 400 135

OKINDEGIA - PANADERIA
IZA
 DESDE 1986

ARTISAU-OGIA
 Ogi berezi eta osansuntsuak

*Eguntentian hasten gara lanean,
 Joan zatez etxera ondo gasalduta*

- Artisau-okindegi honen hirugarren belaunaldia.
- Maitasunez eskuz egindako ogi naturala
- Ore-amaz egina
- Gehigarri kimikorik gabe
- Hartziko errotako irin ekologikoak
- Hartzidura prozesu luzea
- Labeko harrian erreta

Euskadiko urrezko mamia saria

Kurtzegán, 3 · Orozko 94 661 00 68 / Zumalakarregi, 30 · Laudio 94 672 84 94
 okindegiaizahnospanderia@gmail.com **f** panaderiaiza

egoki
 FISIOTERAPIA
 OSTEOPATIA

Jai zoriontsuak!

- Fisioterapia funtzionala · Osteopatia ·
- Masaje terapeutikoa · Drenaje linfatikoa ·
- Bendaje funtzionala eta Kinesiotape ·
- Etxez etxeko zerbitzua ·
- Elikaduraren inguruko jarraibideak ·

Maestro Elorza Kalea 5, Laudio (tren geltokitik hurbil)
 T 945 561 951 · M 605 446 628

Asesoría Aiala

**Fiskala - Kontablea
 Laborala - Aseguruak**

Enpresen eta autonomoen aholkularitza

> Iturralde, 1 · AMURRIO
 Tel.: 945 890 450
 Fax. 945 890 001
 e-mail: aiala@asesoriaaiala.com

IZA ascensores

- ✓ Marka anitzeko igogailuen mantentze-lanak.
- ✓ Berehalako erantzuna.
- ✓ Hurbileko arreta, pertsonalizatua.

www.izaascensores.es ☎ 94 672 21 52

LAUDIO JAIETAN

Hainbat motatako ekintzak antolatu dituzte, jaiak ordezkatzeko

HAINBAT EKINTZA PRESTATZEN ARI DA LAUDIOKO UDALA ABUZZTURAKO, BAINA LAUDIO.EUS ATARIAN EMANGO DUTE INFORMAZIO GUZTIA, AZKEN ORDUKO ALDAKETAK EGON DAITEZKEELA USTE DUTELAKO.

Maiatzean jakinarazi zuen Laudio-ko Udalak aurtengo sanrokeak bertan behera uzteko erabakia. COVID-19aren pandemiak bultzatuta hartu zuen erabakia, baina kultur ekitaldiak antolatuko zituela iragarri zuen, "KultUDA" programaren barruan. Dinamika horren baitan hainbat ekintza prestatu ditu tokiko erakundeak abuzturako. Laudio.eus atarian emango dute xehetasun guztien berri, unean uneko egoerak programa baldintzatu dezakeelako.

Txosna Batzordearen adierazpena

Laudioko Txosna Batzordeak, bere aldetik, aurretik txosnagunea egongo ez dela jakinarazi zuen duela zenbait hilabete. Hala ere, beste mota bateko ekintzak antolatzeko prestasuna erakutsi zuen.



**NERBIOI
GARIAIN
ZERBITZU
OFIZIALA**



Industrialdea, Pab. 4-1 LAUDIO 94 672 81 01

desde 1958tik aurrera

ANA MARI

MORCILLAS

ODOLOSTEAK

**ERRESERBATU ETXERA ERAMATEKO
ODOLOSTEAK**

TEL: 946 72 03 91 620 01 41 74

ABASTOS PLAZA

LTS TALLERES Driver

PNEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

**MEKANIKA INTEGRALA
KAMIOIAK ETA
AUTOAK**

TORREZAR POL. IND. • OROZKO
TEL. 670 383 166
ltstalleres@grupo-driver.com



Bizi eta gozatu!

Pandemiak Laudio, Euskal Herria eta mundua kolpatu ditu. Gure lehen hitzak eskaini nahi dizkiegu senitartekoak galdu, bakardadea sufritu eta lan-merkatuak gehien kolpatu dituztenei.

Aurtengo Latorroko jaiak bertan behera geratu dira, eta egun "bereziak" izango dira, noski. Osasuna eta kaleak betetzea bateraezina bihurtu den garai hauetan, auzoko bazterrak betetzeko modu berriak bilatu behar ditugu. Tokiko merkataritza eta ostalaritzaren hautua egin dezazuen eskatu nahi dizuegu: kaleak bizirik mantentzeko sektore estrategikoa dira, eta hainbat urtetan jaiak diruz-lagundu dituzte. Eskerrik asko. Kalitatezko enpleguaren aldeko eskualdeko edozein ekimen eta mobilizazio babesteko deia ere egiten dugu.

Aurten Udalak KultUda egitasmoa jarri du abian, eta jaien ordez kultur ekitaldiak antolatuko dira: kale ikuskizunak edo marmitako txapelketa (akaso birtuala). Irailaren 18ko asteburuan elkar ikusiko ote dugu?

Latorroko Jai Batzordearen apustua da jaietako udal aurrekontua osasun krisiak gehien kaltetu dituen pertsona, familia eta talde ahulenei diruz laguntzera bideratzea. Eta osasun aholkuak errespetatu, tokiko kultur sortzailerekin aisialdirako tartea berrasmatezea ere. Aurten ere gogoan eduki beharko genuke jai eragile guztien iritzia errespetatu eta elkarlana ez murriztea, eta aurrerarentzean ere, noski. Unean-uneke osasun araudiak eta pandemiaren egoerak zehaztuko du gure jaien erritmoa. 2021. urteko Latorroko Jaiak kañeroak izango dira! Bitartean, elkar-zaintza lehenetsi!

Latorroko Jai Batzordea

IRRINTZI
euskal jantzi denda

Askotariko maskarak

Batzalarrin Kalea, 9 Laudio ☎ 944 072 215
f Irrintzi, euskal jantzi denda

PASTELERÍA
MAESTRO ELORZA, 5 LAUDIO - Tel. 946 720 539

Quintana

Irekita salbu
abuztuaren 17tik 24ra arte

Virtus
FONTANERIA

- 🔧 Berokuntza
- 🔧 Iturgintza
- 🔧 Klimatizazioa
- 🔧 Komunitateetan mantetze-lanak

645 71 52 89 LAUDIO
fontaneriavirtus@gmail.com f

ALMACÉN PINTURAS REGUERA

On line denda

Margoak eta gehiago

Doako garraioak

Klik egin eta %40ko deskontuaz gozatu

www.pinturasycomplementos.es

Non jan eta edan

A Granxa

Ruperto Urkijo 1, LAUDIO
946 72 60 09

Alboka

Batzalarrin 10, LAUDIO
946 02 43 32

Aldatz

Zumalakarregi 36, LAUDIO
946 72 46 08

Americano

Zubiko Kurajo 4, LAUDIO
946 72 24 76

Andoniren taberna

Irukurutzeta 25, LAUDIO
946 72 14 95

Anuntzibai Jauregia

Anuntzibai z/g,
LAUDIO
946 72 61 88

Araba

Zumalakarregi 35, LAUDIO
946 72 38 08

Aratz

Areta 22, LAUDIO
944 66 77 49

Arkupe

Herriko plaza 4, LAUDIO
946 72 01 23

Arrañope topagunea

Zumalagarregi 45,
LAUDIO
846 66 44 20

Avenida

Zumalagarregi 25, LAUDIO
946 55 25 37

Azoka

Alberto Acero 13, LAUDIO
946 72 42 13

Batzokia

Alberto Acero 12, LAUDIO
946 03 40 00

Balintzarreketa

Malkuartu Bidea 1, LAUDIO
946 76 43 50

Bazter taberna

Kafea eta garagardoa. Giro
atsegina eta freskoa.
Batzalarrin 2, LAUDIO
946 72 22 39



Bengoa

Nerbioi 3, LAUDIO
946 72 10 09

Biarritz

Zubiko Kurajo 1, LAUDIO

Biribil

Zumalakarregi 39, LAUDIO
946 72 80 00

Boinare

Freskatu gurekin!

@bonairelaudio

Zumalakarregi 42, LAUDIO
946 72 58 41



Casa del pueblo

Untzueta plaza 4, LAUDIO
946 56 94 74

Capucci Katua Berria

Zubiko Kurajo 7, LAUDIO
946 12 75 70

Extremadurako zentroa

Kamaraka 1, LAUDIO
944 25 76 51

Drumgorri Aretoa

Etorri eta terraza freskoaz eta handiaz gozatu
Askotariko edariak, musika paregabea eta aparleku
Zabala.



@DRUMGORRI

@DRUMGORRIBERRIROARETOA

Pol. Industrialdea C/ikaskin 5
Geltokia/ renfe línea/C3 snt.cruz de lldio

Dorrea

Ugarte 16, LAUDIO
944 04 88 78

Doner Kebab Prince Europa

Motxotekale 2,
LAUDIO
946 12 04 86

Doner Kebab

Araba 2, LAUDIO
944 03 00 56

Drumgorri

Terraza freskoa, musika pare-
gabea eta aparkaleku zabala.
Ikaskin 5, LAUDIO
634 43 98 72



Ederki

Zumalakarregi 50, LAUDIO
946 53 95 35

Egarri

Ibaizabal 1, LAUDIO
946 72 27 47

El Lio

Zubiko Kurajo 11, LAUDIO
620 12 89 48

El Pozo

Ugarte 2, behea LAUDIO
946 72 83 34

El Túnel

Gasteiz errepidea, 5 ARETA
946 72 05 58

El Valle

Zumalakarregi 19, LAUDIO
944 03 60 97

Eroski

Zumalakarregi 66, LAUDIO
946 72 33 59

Ertza

Ezka 2, LAUDIO 946 72 60 03

Fuentesila

Irukurutzeta 9, LAUDIO
946 72 20 55

Gazela aretoa

Zubiko Kurajo 2, LAUDIO
650 96 26 22

Gorbea

Ugarte 1, LAUDIO
946 72 29 75

Gorka

Etxeko janaria eta jantoki
zabala
Batzalarrin 7, LAUDIO
946 72 49 30



Gozo Toki

Alberto Acero 5, LAUDIO
946 72 10 08

Haitzulo Barri

Zumalakarregi 43, LAUDIO
946 72 13 72

Huts

Zumalakarregi 17, LAUDIO
946 72 59 97

Iluntze Kafe

Zumalakarregi 47, LAUDIO
946 72 50 23

Indriska

Batzalarrin 10, LAUDIO
946 72 28 62

Ilargi

Terraza zabala eta freskoa
Batzalarrin 6, LAUDIO
608 86 31 38



Jovi

Zumalakarregi 17, LAUDIO
84 666 49 78

Kalua

Gorbea 1, LAUDIO

Karrika

Industrialdea,4. pabilioia
LAUDIO 946 72 82 07

Keska taberna

Zubiko Kurajo 2, LAUDIO
688 62 42 42

Kintres

San Martin 4, LAUDIO
678 38 98 93

Korrika Benta

Arantzar 1, behea LAUDIO

La Estación

Jose Matia 2, LAUDIO
946 72 17 21

La Unión

Zumalakarregi 30, LAUDIO
946 55 10 63

Larrea

Dr. Fleming 3, LAUDIO
946 72 50 13

Lateorro

Pagolar z/g, LAUDIO
946 72 01 76

Laubide

Virgen del Carmen 44, LAUDIO
946 72 02 30

GIDA

Laurak

Irukurutzeta 17, LAUDIO
946 72 27 25

Lauri Barria

Herriko plaza 9, LAUDIO
946 72 15 80

Leize

Ardantzazar 3, LAUDIO
944 74 18 98

Malekoia

Zubiko Kurajo 11, LAUDIO
946 56 63 70

Mulan

Irukurutzeta 5, LAUDIO
946 72 84 24

Odeibar

Aldapeta 2, LAUDIO
946 72 06 83

Pagolar

Pagolar 4, LAUDIO
687 62 42 00

Paraiso Chino

Virgen del Carmen 31, LAUDIO
946 72 65 17

Santa Ana

Vitoria 5, LAUDIO
946 72 27 50

Tacos Darkom

Jose Matia 4, LAUDIO
946 85 25 00

Telepizza

Zumalakarregi 44, LAUDIO
946 72 05 90

Txango gastrotaberna

Virgen del Carmen 7, LAUDIO
944 67 71 00

Tolo

Erlaxatu eta gozatu!

Virgen del Carmen 9, LAUDIO
672 23 50 65



Toki On

Landaluze 31, LAUDIO
946 01 67 07

Topa gastrotaberna

Ruperto Urkijo 1, LAUDIO
946 72 17 27

Txango gastrotaberna

Virgen del Carmen 7, LAUDIO
944 67 71 00

ILARGI TABERNA

Batzalarrin kalea 6, Laudio
94 672 09 99



Zure disko-taberna!

Zumalakarregi etorbidea, LAUDIO 946 72 58 41

Jarrai gaitzazu!  

Tolo



2021eko uztailaren 4an **bederatzigarren urteurrena** ospatuko dugu
Aldai Plazan.

Gurekin ospatzera etorriko zarela argi baduzu, gaurtik bertatik **10€** eman ditzakezu.
Ordainketa **bizum** bidez egingo da, mugikorraren aplikaziotik.

Ez duzu dirua galduko; COVIDaren agerraldiak jarraitzen badute,
bizuma itzuliko dizugu.



 **bizum**  **672 235 065**

**Txantxiku
Hanburgesategia**

Zubiaur 3, LAUDIO
946 72 27 74

Ugarte

Ugarte 11, LAUDIO
946 72 56 99

Utzine

Lamuza 23, LAUDIO
946 72 12 32

Valle de Ayala Hotela

Jose Matia 36, LAUDIO
946 72 36 11

Zuberoa kafe

Arantzar 1, LAUDIO
685 71 56 33

Zubiaur

Zubiaur 3, LAUDIO
946 56 63 15

**Non
lo egin**

Valle de Ayala Hotela

Jose Matia 36, LAUDIO
946 72 36 11

BAZTER
taberna

*EGIN
GUREKIN TOPA!*

Ondo pasa!

Batzalarrin 2 LAUDIO
PLAZAKO ARKUPEETAN

1982AN SORTUA

GORKA
• T A B E R N A •

EGUNERO: Pintxo barra
ASTEBURUETAN: Errazioak

Batzalarrin kalea 7, LAUDIO 94 672 49 30

Egin klik karta ikusteko!



f i

 **YANDIOLA**
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behe
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00

75 urte zurekin

 **PADI PROGRAMA**

 **INPLANTEAK**

 **3D ERRADIOGRAFIAK**

 **Aialur**
Ingeniería de montes,
topografía y medio ambiente

25 urte zurekin

Tel. 945 89 02 56 Fax. 945 89 23 24

- > Obrazko topografia
- > Lur-sailtako neurketak
- > Mugarriztatze eta mugaketak
- > Ingurune inpaktuen ebaluazioak
- > Ingurune proiektuak
- > Baso jasagarrientzako planak
- > Proiektu eta aktibitate lizentziak nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenetan
- > Pinudien tasazioa
- > Balorazio eta tasazioak

Maskuribai Industrialdea, Pab. B-03/ B-10
AMURRIO (Araba) aialur@aialur.com

 **etxaurre**
higiezin agentzia

20 urte zurekin!

Zumalakarregi, 38
01400 • Laudio

94 672 85 50

BEZEROARENTZAKO ARRETA

- Pisuak
- Txaletak
- Lokalak
- Lursailak
- Balioespenak



**ABUZTUKO
ORDUTEGIA:**

OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
10:00–14:00 eta
17:00–20:00

**LAUDIOKO ABASTO
PLAZAN**
(Nerbioi kalea 6)

www.ekonomatua.eus

DENDA ZABALIK! BISITA GAITZAZU

**Aiaraldeko eta inguruko tokiko produktu ekologikoen
eskaintza zabala topatuko duzu dendan**

300 produktu
baino gehiago

45
ekoizle



Dendan erosteko aukeraz gainera, irailetik aurrera online eskaerak egin ahal izango dira berriz ere: igandea baino lehen eskaera egin eta ostegun-ostiralean etxean bertan jaso ahal izango duzu erosketa saskia.

AIARALDEA EKINTZEN
**FAK
TO-
RIA**

#BizitzekoFaktoria
#ElikatzekoFaktoria

Tokiko produktu ekologikoen eta kultur sorkuntzaren plaza



Fkaina hasieran ireki zituen ateak Aiaraldea Ekintzen Faktoriako Ekonomatuaren denda fisikoak. Laudioko Abasto Plazan dago establezimendua, Basalarrina euskal topagunearen lokalean (Nerbioi kalea, 6). Kokapena behin-behinekoa dela nabarmendu dute ekimenaren sustatzaileek, Laudioko Industriaguneko Faktoria irekitzen denean bertara mugituko baitira.

Helburu nagusi batekin zabaldu zuen denda ekonomatuak: Aiaraldeko eta inguruko tokiko produktu ekologikoak herritarren eskura jartzea. Tokiko 45 ekoizleren produktu ekologikoak topatu daitezke bertan, 300 produktu baino gehiago guztira. Astebururo egongo da denda irekita, udan zehar. Ostiraletan 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara bisitatu ahalko da. Larunbatetan, aldiz, goizeko txandan egongo da zabalik.

Horrez gain, terraza eta taberna zerbitzua ere atondu dute Ekonomatuko kideek Abasto plazan, tokiko produktu ekologikoak bertan kontsumitu ahal izateko. Ekonomatuaren online denda, al-

diz, irailean egongo da berriz abian. Hala ere, Ekonomatua.eus atarian ekimenari buruzko informazio guztia topatu daiteke, denda fisikoan dauden produktuen katalogoarekin batera.

Faktoria Arrastiak

Baina Ekonomatuaren jarduna ez da tokiko produktu ekologikoen salmentara mugatzen. Uztailaren hasieran abiatu zuten Faktoria Arrastiak dinamika Abasto plazako terrazan, eta kultur-afariak antolatzen dabilta astebururo, hainbat sortzaileen emanaldiekin.

Irailearen 5era arte luzatuko da dinamika. Igor Arzuaga, Iker Lauroba, Abereh, Leie Meie eta Jon Gurrutxaga eta Urbil Artolak jo dute dagoeneko.

Larunbat honetan -abuztuak 8- Asla taldeak joko du. Hilaren 14an Ane eta Ainize bikote akustiko ugaoarra igoko da oholtzara, Ekiza (Willis Drummond taldeko abeslaria) 22an, Esne Potak talde laudioarra 28an, Peru Galbete donostiarra 29an eta Birkite bilbotarra irailaren 5ean.




FAKTORIA

ARRASTIAK

LAUDIOKO ABASTO PLAZAN

20:00etatik 22:00etara



Abuztuak 8, larunbata

ASLA TALDEA

Abuztuak 14, ostirala



ANE ETA AINIZE

Abuztuak 22, larunbata



EKIZA

(WILLIS DRUMMOND)

Abuztuak 28, ostirala



ESNE POTAK

Abuztuak 29, larunbata



PERU GALBETE

"Nor zara zu?"
diskoa taldearekin aurkezten

Irailak 5, larunbata



BIRKIT





AFALTZEKO AUKERA ESKAINIKO DA EMANALDIAN:
Okela eta barazki hanburgesak, pizza artisauak, partekatzeo errazioak, izozki ekologikoak, etxeko postreak...

+ TABERNA ZERBITZUA

SARRERA: Borondatea jasoko da, krisi egoera honetan kultur-sortzaileak babestu eta sustatzeko

ARRANKUDIAGA ETA ZOLLO



TXUTXI ARIZNABARRETA
Arrankudiaga eta
Zolloko alkatea



CCOVID-19ak eragindako pandemiak gure eguneroko bizitza hankaz gora jarri digun garai honetan, lehenik eta behin, hildakoak, gaixotasuna sufritu dutenak eta sufritzen ari direnak ditugu gogoan eta, nola ez, euren senide eta lagunak. Une gogor hauetan, bat egiten dugu guztiekin. Osasun larrialdiarekin batera krisialdi ekonomikoak dugu ate joka. Geure eskualdean ere, lanpostu galerak, enpresa eta negozio txikien itxialdiak eta familia askoren estualdi latzak bizi ditugu. Elkartasun osoa adierazten diegu guztiéi, eta gure udaletik ere, ahal dugun neurrian, egoerari aurre egiteko konpromisoa hartzen dugu.

Eskerrik asko auzotar guztioi duzuen jarrera zuhur eta arduratsuegatik, birusari aurre egitea geure esku ere badagoelako. Jai eta ospakizunak bertan behera gelditu dira eta maskara eta distantziak oztopo handia dira bizitza sozialerako; egoera berrira egokitu ezinik oso deseroso gabilta, baina ez dezagun galdu elkarbizitza grina eta bizipona. Elkar zaintzeko garaiak dira.

Hodei beltzetatik harago, bila ditzagun eguzki izpiak zeruertzean, eta jarrai dezagun egunero gure ametsak eraikitzen. Denon artean lortuko dugu!



Arrankudiaga-Zolloko
Udala

Guda Zibileko aztarnen atzetik

Lanketa handia egin dute Arrankudiaga eta Zollon azken urteetan memoria historikoaren berreskurapenari begira. Txomin Egiluz eta Markel Iturrizar bizilagunek hainbat ikerketa, hitzaldi eta ekimen egin dituzte udalerrian Guda zibilean gertatutakoa argitara ekartzeko. Zonaldean Kondor Legioak jaurtitako bonben nondik norakoak ikertu dituzte, besteak beste. Horrez gain, gerraren aztarnak bilatu eta berreskuratu dituzte.

Burdin Hesitik txangoa

Gauzak hala, ibilbide politak egin daitezke udalerrian barena, Guda Zibilaren arrastoak ezagutzeko. 2018. urtean indusketak egin ziren eta metrailadore-hobi bat berreskuratu zuten.

Ondoren, hainbat seinale jarri zituen udalak, Gogora institutuaren diru-laguntza baliatuta. Arrankudiagako plazan dago lehen kartela, Garondora joateko bidea erakusten duena.

Ikurrak jarraituz gero, ibilbide polita osatu daiteke historia hurbilean barrena. Zabaletik, Albitzarriko metrailadore hobitik, Altzagatik, Madalenatik eta Mugarriluzetik igarotzen da bidea. "Albitzarrin badaude beste bi metrailadore hobi, apur bat ezkutatuta", azaldu du Egiluzek, "Altzagako aldapa igo bezain laster beste bat topatu daiteke".

Madalenako zonaldea ere jarri du balioan historiazaleak. "Gaur egun aterpe bat dago bertan, baina XVIII. mendean eraitsitako ermita baten arrastoak ere ikus daitezke. Handik 300 metrora Guda Zibileko beste metrailadore-hobi bat topatu daiteke. Bertatik aukera dago Goikoganera igo eta Kastillozarreraino jarraitzeko, Burdin Hesiaren Laudioko zatitik".

Zolloko bidea

Zollon ere beste bide polit bat dagoela gehitu du Egiluzek. "Zolloko udaletxetik errepidea jarraituta, Mengorio auzora joan behar da. Bertatik Ollargan aldera jo behar da gero. Hiru koba daude, gerrako materiala gordetzeko baliatzen zirenak. Bi metrailadore-hobi ere ikusi daitezke bidean. Gotorleku bat ere ikus daiteke, oso egoera onean ez dagoen arren".

Historiazaleak argitu duenez, ez da kasualitatea Zollon horrenbeste aztarna topatzea. "Zolloko urtegia babestera bideratuak zeuden, Bilbon denbora luzez setiatzen bazuten ur-hornikuntza bermatu ahal izateko".



Argazkiak: Saratxo Aldama Guaresti eta Bizkaiko Foru Aldundia

Arrankudiagako gailur eta auzoetatik ibilaldia, hiru ordutan hamaika leku

Arrankudiaga eta Zollo, udalerririk "txikia" izanagatik, oinez ibiltzeko itzuli laburrak zein handiak eskaintzen ditu. Ondo baino hobeto daki hori Urtzi Vergara Belaustegigoitiak. 3 ordu eta 10 minutuan gauzatzeko ibilaldia proposatu du, Arrankudiagatik Pagobakarra, Goikogane, Mugarriluze, Kamaraka eta Basakoetxe lotzen dituen.

Udaletxetik Pagobakarrara

Arene baserriatik abiatu ohi du ibilbidea Vergara Belaustegigoitiak. Hori bai, kantinplora ondo beteta, "Basakoetxeraino heldu arte ez dago iturririk eta". Arrankudiagako udaletxearen atzetik egin behar da gora, "pista jarraituta Pagobakarrara helduko gara". Hala ere, Otxanduriko goiko partetik ere badago modua toki berera ailegatzeko. Pagobakarra igotakoan, aurrera -gora- doan bidea hartu behar da. Hala, Ermualdera (Laudio) iristen da bidaidea. Dena den, Pagobakarra inguruan, une batean bukatu egiten da pista, eta bidezidor estu bilakatzen da bidea. Hemendik gora izugarrizko bistak daude: Areta, Arakaldo, Laudio...".

"Bortaletik" -horrela deitzen diote inguruari Arrankudiaga aldean- Goikoganeko tontorra ikusten da. "Pista estua da baina pixkanaka-pixkanaka edozein lekutik igo daiteke", zehaztu du.

Goikoganetik Kamarakara

Goikoganetik Mugarriluze eta Kamarakara joatea oso ohikoa da jendearentzat. Untzueta, Gorbeia eta eguraldi ona badago, Bizkaiko kostaldea ere begizta daiteke handik: "Inguruko herriak ikusi ditzakegu, egun ona izanda izugarrizko

argazkiak egingo ditugu. Bidea oso ondo markatuta dago". Mugarriluzeko aldapa laburra baina "potentea" da, Vergararen iritziz, "tontorrera heltzean aurrera egingo dugu Kamaraka mendiraino".

Basakoetxe, atsedenua aparta

Ibilaldia luzatu nahi duenak Kamarakatik Ganekogortara jo dezake. Alabaina, Kamarakatik Ganekogortarantzako norabidea hartuta, "aldapa behera egin eta gero, bidegurutze bat aurkituko dugu, eta gezia Basakoetxe jartzen duen kartel bat". Malda behera, jaitsiera luzetxo da: "Aldapa behera bukatzean bidegurutze bat aurkituko dugu. Eskuinera hartuta Arrankudiagara helduko gara, baina guk aurrera egingo dugu Basakoetxeraino". Bost minuturen bueltan, Basakoetxeko ermitan hartuko du atsedene mendizaleak. Hamaiketako egiteko leku pare-

gabetzat du Vergara Belaustegigoitiak Basakoetxe. Gainera, ur freskoa dago.

Auzoetatik itzulera

"Basakoetxe ermitatik behera dagoen pista jaitsita Basakoetxe auzora iritsiko gara, eta bidegurutzean eskuinera joanez gero, mendi pista desagertu eta asfalto bidea topatuko dugu. Jaitsierak ez du galbiderik, zuzen joan behar da, eta Larunbe erreka ondotik doa bidea. Modu horretan, Ormetxe auzoa pasatu eta zubi txiki batetik igaroko gara, eta bidetari segika Bidekurtxe auzora ere". Etxeak atzean utzita, Zabale auzoa izango da hurrengo geltokia, eta bidegurutzean ezkerrean jota, Garondora heldu daiteke. Azkenik, Arrankudiagako plaza bisitatzea aholkatzen du: "herriko tabernetan pote batzuk hartzeko aukera izango dugu".



Udaletxe atzeko pistari jarraituta iristen da Pagobakarrara. Hala ere, Otxanduriko goiko partetik ere badago toki berera iristeko aukera. Pagobakarra atzean utzita, nahi izanez gero Ermualdera jo daiteke.

ARRANKUDIAGA-ZOILLO

"Bortaletik" Goikoganeko tontorra ikusten da. Pista estua da, baina pixkanaka-pixkanaka edozein lekutik igo daiteke. Goikoganera iritsita, Mugarriluze eta Kamarakarako bidea hartu.



Mugarriluzerako aldapa laburra izan arren, maldatsua da. Hala ere, edonork gaindi dezake.



Goikoganetik Untzueta, Gorbeia, Gorobel mendilerroa eta beste hamaika gailur ikusi daitezke, itsasoa barne. Burdin Hesia osatzen zuten gailurrek, Bilbo defendatzeko mendi-harresia. Goikoganetik Mugarriluzera ez dago galbiderik.



Kamaratik Ganekogortarako bideari segika, malda behera bukatu bezain pronto, "Basakoetxe" jartzen duen seinalea dago. Norabide horri helduta ermitara iritsiko gara: atsedena hartzeko leku paregabea da, eta iturria du. Bertatik Ormetxe, Bidekurtxe, Zabale eta Garondo auzoak zeharkatu daitezke, txangoa herriko plazan bukatzeko.

Kamaraka gainera, Ganekogorta, Gallarraga eta Zolloko urtegiak pizten dute mendizalearen arreta.

Datuak

DENBORA: Ibilian 3 ordu eta 15 minutu. Guztira, 5 ordu eta erdi, atsedena barne. **LUZERA:** 14,92 kilometro



EKILORE

JANARI DENDA

Etzez etxeko zerbitzua
Bertako produktua

Elexalde kalea 18,
Arrankudiaga
688 630 165



Non jan eta edan

Agirre taberna

ARRANKUDIAGA
94 648 19 67

Bakiola jatetxea

Bakiolako poligonoa 63,
ARRANKUDIAGA
946 48 19 17

Batzokia

Arrankudiagako plaza,
ARRANKUDIAGA
946 48 18 15

Gizarte Etxea

Arrankudiagako plaza,
ARRANKUDIAGA
946 48 16 34

Iberlanda taberna

Askotariko pintxoak eta
gerizpetan dagoen terraza
freskoa

Iberlanda auzoa 1,
ARRANKUDIAGA
676 07 48 39



Xarmanta

Zuloaga auzoa z/g,
ARRANKUDIAGA
946 72 47 34 / 657 79 09 61

Zolloko taberna

ZOLLO
946 48 09 60

Herri eta auzoetako jaiak, bertan behera



Bertan behera geratu dira Arrankudiagako Andra Mari jaiak. Hala erabaki zuten udalak eta jai batzordeak, uda hasieran eginiko bilera batean. Atxetako jaiak ere ez dira ospatuko. Zolloko jaiekin zer gertatuko den, aldiz, ebazteke dago oraindik, azaroan ospatzen baitira.

ZUFOIN
PODOLOGIA LAUDIO

- KIROL PODOLOGIA
- KIRURGIA BERRITZAILEAK
- KIROPODIAK
- OIN-DIABETIKOA

ABUZTUAN ERE ZABALIK!

KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
audiopodologia@gmail.com

**TABERNA
IBERLANDA**



Iberlanda auzoa 4, ARRANKUDIAGA
676 074 839

YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behe
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00


75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIAK

OKONDO

Auzo eta mendietatik, bost bide

Nork uste zuen Okondon zer egirik ez dagoela? Sodupe, Aiara eta Laudioko mugen artean, badira ibilian gauza daitezkeen zenbait ibilbide, labur eta luze. Guzti horiek dokumentatu dituzte Okondoko Udalaren webgunean, leku interesgarriak barne.

Gallarraga da Okondoko puntarik gorena. Ganekogortara jotzeko ohitura ere badute askok, bi gailurrak nahiko gertu baitaude. Landeta baseritik abiatzen da Gallarragarako bidea, eta 4 orduko zeharkaldia da. Guztira, 13,9 kilometro dira Gallarraga (900 metro) eta Ganekogorta (999 metro) batzeko distantzia. Bidean, behiak, zaldiak edota saiak topatuko ditu ibiltariak. Mendilerroari dagokionez, EAEko Korridore Ekologikoen Sareko eremu gisa katalogatua dago, eta, besteak beste, bisoi europarra aurki daiteke bertan.

Untxiaren kobazuloa barne hartzen du ibilbide honek, kareharrizko geruzan sortutako barrunbea. Horrez gain, Miñaurreko gaztainondoak zeharkatzen ditu txangoak. "Horien adarrak erabiltzen zituzten burdinoletan ikatza egiteko". 12,5 kilometroko zeharkaldia 3 ordu eta 10 minutuan egiten da, gutxi gorabehera, eta Agilatos eta Zartuña mendiak barne hartzen ditu. Historikoki ere, badu mamia inguruak: "Eremu maldatsu honek liskarrak sortu zituen Okondo eta Gueñes artean, 1574an, Exekuzio Gutunak Okondori aitortu ziolako eremuaren titulartasuna".

Beste ibilbide bat San Romango elizatik 12,1 kilometroko itzulia da, San Roman, Gazteluzar,... lotzen dituen. 3 ordu eta 15 minutuan osatzen da. Ardi eta behien artean igarotzen da bidea, eta Bilboko Burdin Hesiaren parte da. Izan ere, Gazteluzar gailurretik gertu 2 harlan-

gaitz-hormak daude, Guda Zibilean Bilbo defendatzeko eraikiak. Horrez gain, Aretxarro, Mareazulo eta Molingitxi kobazuloak edota Jentilen leizea elkartzen ditu zirkuituak. Ugalde auzoan bukatzen da etapa, Zurikaldai jauregian, hain zuzen. Ibilbidea, oro har, malda eta zailtasun gabea da, pista eta harrizko bidea.

Untzalde, Pagolar eta Markuartu

Igerilekueetatik irtenda, Okondoko beste mendi bat ezagutzeko parada da honakoa: Pagolar. Inguruko pagoek eman zioten tontorrari izena, eta Okondo haranaren bistak barne hartzen ditu. Markuartuk, bestalde, baserri eta Ganekogorta zein Gallarragako magalez gozatzeko parada ematen du. 12,8 kilometroko ibilaldia da, eta 3 ordu eta 40 minutuan buka daiteke. Bidearen ezaugarri dago-

kienez, azken 2 kilometroak salbu, ibilera errazekoa da. Pagolarrerako tartea pista eta bidezidorrez horitua dago. Hala ere, "desbideratzeei arreta jarri behar zaie", nabarmendu dutenez.

Untzako eliza da beste ibilbide honen hasiera eta helmuga puntua. Untzako Santa Maria parrokia-eliza, Otaolako San Sebastian ermita eta Peñahinchada zeharkatzen ditu. Azken hau, 1,80 metroko hareharriak egin du ezagun, "Okondo eta Gordexolaren arteko muga zehazten du, eta Bikirrio gainaren azpian dago. Mahatsondoen panoramika ederra ikus daiteke bertatik". Txakolinaren lekuko da Basoaldu auzoa igarotakoan ikusten den Astobiza upategia, besteak beste. Orota-ra, 13,1 kilometroko zeharkaldia da, eta 3 ordu eta 15 minutuan gauzatzen da, batez beste.



"San Roman-Ugalde" txangoak Gazteluzar eta Ugalde auzoa lotzen ditu. 3 ordu eta 15 minutuko irteera da.

ARGAZKI ERREPORTAJEA

Okondoko Udala



"Laburu, Miñaur eta Zartuña ibilbideak Untxiaren kobazuloa barne hartzen du. Horrez gain, Miñaurreko gaztainondoak zeharkatzen ditu txangoak. 12.5 kilometroko ibilaldia da, eta 3 ordu eta 10 minutuan egiten da.

Gallarraga mendia da Okondoko beste jomugetako bat. Ganekogortara ere joan daiteke bertatik. 4 orduko zeharkaldia da, eta 13.9 kilometro osatu behar dira. Okondoko Landeta baserritik abiatzen da bidea.





Pagolar tontorretik Okondo zein Aiaraldeko beste herriak ikusi daitezke. Mostatxa tontorrera luza daiteke ibilaldia.



"Untzalde-Pagolar-Markuartu" zirkuituak, berriz, baserri eta mendiez gozatzeko parada eskaintzen du 12.8 kilometrotan. Guztira, 3 ordu eta 40 minutuko itzulia da.



"Otaola-Basualdu" bideak Untzako eliza du hasiera eta helmuga. 13.1 kilometroko zeharkaldia da, 3 ordu eta 15 minutuan egingarria.



Astobiza Txakolindegia

Mahasti eta upategiek dotoretzen dute "Otaola-Basualdu" zirkuitua. Izan ere, besteak beste, Astobiza txakolindegitik igarotzen da.

Datuak

DENBORA: Proposatutako ibilbideek 3-3,5 ordu inguruko iraupena dute.

ZAILTASUNA: Zailtasun maila erraza dute.



Non jan eta edan

Batzokia

Irabien 16, OKONDO
945 89 81 87

Gorostiola

Gorostiola 2, OKONDO
945 89 81 64

La Ventilla

Agirre Ventilla 4, OKONDO
945 89 80 08

Txaparro

Villachica 16, OKONDO
945 89 82 81

Zigor

Irabien 24, OKONDO
620 20 00 83

Udako egitaraua

08.16

1GANDEA

19:30 "El Peli" umoregilearen
bakarrizketa

08.19

ASTEAZKENA

17:00-20:00 Odol-ematea
Anbulategiko aparkalekuan

08.21

OSTIRALA

20:00 Inma Roiz idazlearen
hitzaldia

08.24

ASTELEHENA

12:00 Burbuila erraldoiak

18:30 Iñigo Salineroren
bakarrizketa

21:30 "La pequeña Suiza"
filmaren proiektzioa

08.31

ASTELEHENA

18:00 Magia tailerrak
7-12 urte bitartekoentzat

19:30 Magia ikuskizuna
Kidam magoarekin

09.04

OSTIRALA

20:00 "Escupido amor"
antzezlan

Maitasun erromantikoari
buruzko umorezko lana

OHARRA: Ekintzak futbol zelaian
jarritako karpan egingo dira



CándidoBesa
UPATEGIA

Eskuernaga (Arabar Errioxa)
Tel.: + 34 945 623 355 / 685 738 193
www.candidobesa.com



YANDIOLA
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00

75 urte zurekin



ZUFOIN
PODOLOGIA LAUDIO

- KIROL PODOLOGIA
- KIRURGIA BERRITZAILEAK
- KIROPODIAK
- OIN-DIABETIKOA

ABUZTUAN ERE ZABALIK!

KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

URDUÑA

Auzolanean eraikitako erakusketa gunea

Duela urtebete ireki zituen atea Urduña Hiria erakusketa guneak Andra Mari plazan, lehen Kultur etxea zegoen eraikinean. Hainbat bizilagunen ekimenez sortu zen proiektua, eta auzolanean egin zituzten espazio atondu, piezak bildu eta erakusketa prestatzeko lanak. Hamaika Kale Elkarreak kudeatzen du gunea, 1.200 metro koadro ditu, eta 15 gelatan banatuta dago. Gela bakoitzean Urduñako historia eta ondareari lotutako alor bat jorratzen da, hainbat dokumentu eta piezaren bidez.

Zortzi gai guztira

Urduñan egondako gremioen nondik norakoak islatzea da gurearen xede nagusia. Espazio zabalda dago horretara bideratuta, baina bestelako gauzak ere topatu daitezke. Udal liburutegia zegoen tokian, adibidez, fosil eta mineral bilduma oparoa jarri dute. Zortzi gai jorratzen dira guztira erakusketa gunean: antzinako matrikula eta bizikletak, aulkigintza, ezkogintza, forjaketa eta latorritegia, gozogintza, musika, paleontologia eta zapata-gintza. Etorkizunari begira, espazioa zabaltzeko asmoa dute Hamaika Kaleko kideek. "Baditugu momentuz libre dauden beste leku batzuk, etorkizunean ditugun material eta indarren arabera erabiliko ditugunak", adierazi zuten gunea ireki zutenean.

Bisitak

ORDUTEGIA: Ostiraletan 17:00etatik 20:00etara dago erakusketa gunea irekita, larunbatetan 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, eta igandetan 11:00etatik 14:00etara.

BISITA GIDATUAK: Ordu horietan egingo dira harreragunean sortzen diren taldeekin. Ez da beharrezkoa izango aurretik erreserba egitea eta talde bakoitzak hamabi kide izango ditu gehien jota. Bisitek ordu eta laurden inguru irauten dute.

TALDEENTZAKO BISITA GIDATUAK: Beharrezkoa izango da aurretik erreserba egitea, harrera gunera joanda, contacto@ordunahiria.org helbidera mezua bidalita edo 635 751 436 telefonora deituta.



Urduñatik

Tertanga eta Artomañara

“Arrastariari itzulia”

Oinez edo bizikletaz paseatzeko bide eta paisaia lasaiak uztartzen ditu Arrastariako itzuliak. Tertangatik, Delikatik edo Urduñatik hasi daiteke bidea; finean, bakoitzak gogokoen duen puntutik. Gainera, freskatzeko guñeak ere badaude tartean, Delikako edo Tertangako erreka kasu.

Trenez edo autoz hurbildu nahi duenari pautak errazteko, Urduñan hasiko dugu ibilbidea. Rondina industriaguneko lakua izango da lehenbiziko geltokia, Txarlazo mendiaren oinpeko urmaela. Lakuaren aldameneko biribilgune-tik gorantz doan errepidea hartuta, Tertangako baserrien artera helduko

da ibiltaria. Bolatokira heldu aurretik ezkerako bidea hartuta, zelai txiki batean errota eta erreka topatuko ditu bidaideak. Tertangako bide nagusira itzulita, eliza atzean utzi, eta Urduñako mendatera doan errepidera ailegatzenda. Handik aurrera doan pista jarraituta, Delikaraino iritsi daiteke. Nahi izanez gero, Infernua tabernan atsedean hartzeko landa paregabera dago. Oinez edo bizikletaz ibiltzea bada asmoa, ordea, Delikako errepidea jarraituta Urduñara edo Artomañanara joateko bidearekin egiten da topo.

Artomañanatik Urduñara partzelen arteko pistak ere badaude, eta edozein

hartuta Bizkaiko hirira hurbil daiteke, galbiderik gabe gainera. Ibilbidea luzatu nahi izanez gero, Urduñarantz gerturatzean, erreka ertzetik Arbieto auzora jo daiteke; berariaz egokitutako harrizko bidetik edota ibaitik paraleloki doazen pistetatik. Izan ere, mokadurako mahai eta komunekin egokitutako espazioa dago bertan.

Zailtasun mailari dagokionez, bide errazak dira, bakoitzaren gogo eta indarraren arabera luzatu edo laburtzeko modukoak. Saratxoren faltan, beraz, Arrastaria osoari bira emango genioke, bidezidor ezezagun bezain ederren artean.



Urduñako zezen-plazan hasten da ibilbidea. Ez dago markatuta, baina ez du galbiderik, pistek toki beretsuetara eramaten baitute bidaidea.



Rondina industriagunerako norabidea hartu behar da lehenik. Txarlazoren magalean urmael handia dago. Gainera, aisidaldirako bankuak eta boletibol pista ditu.



Urmaetik aurrera trenbidea azpitik zeharkatuta, Tertangarako bidea hartzen da. Aldapa bat edo beste dago, baina Urduña eta Arrastariako paisaiek nekea ahaztuarazten dute.

Tertangako hilerria eta herria atzean utzita, errepide nagusira iristean, aurrera egin behar da, Delika alderantz.



GARRAIOAK

La Antigua




Tel. 679 52 17 79
URDUÑA

hitz zentroa

LOGOPEDIA / PEDAGOGIA
FISIOTERAPIA PEDIATRIKOA
OSASUN OROKORREKO PSIKOLOGIA
SEXOLOGIA KLINIKOA

PROFESIONAL
EUSKALDUNAK
ZURE
ZERBITZURA

Arreta goiztiarra (0-6 urte)

Karmen kalea 39, 01400 LAUDIO hitz.zentroa@gmail.com
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22





Delikan ibilbide ugari daude markatuta. Artomañana edo Aloriarantz, eskola parako pistek hurbilduko gaituzte.



Trenbidearen eta Gorobel mendilerroaren artean, Delikako larre eta mahasti artean murgilduko da bidaidea. Delikatik Artomañanara, Aloriara edo Urduñara jo daiteke. Edozein pista hartuta ez dago galbiderik.



Santa Klara auzo eta konbentutik, Arbietoko atsedengunera luza daiteke txangoa. Ezbairikgabe, paseo lasai bezain ederra da.



Datuak

DENBORA: Oinez 2ordu inguru daude (ibilbidea luzatu edo laburtzeko moldagarria da), bizikletaz 50 minutu inguru behar dira Urduñatik Arrastariako herriak lotzeko.

LUZERA: 15 kilometro.

Non jan eta edan

Amnesia Inn taberna

Burgos 10, URDUÑA

Bar X

Foru plaza 12, URDUÑA
945 384 121

Batzokia

Burgos 20, URDUÑA
945 383 926 / 689 272 440

Belatz Gorri Tavern

Gran Via 9, URDUÑA
945 383 306

Bodeguilla La Antigua

La Antiguako pasealekua 32,
URDUÑA
659 481 326

Karmele Etxea

Kale Barria 18, URDUÑA
945 383 921

La Posada

Kale Barria 48, URDUÑA
945 383 294

Lupardika

Donibane 11, URDUÑA
945 383 371

Politena kafetegia

Gran Via 5, URDUÑA
635 70 23 09

Degustación Meli's

Gernika plaza 10, URDUÑA
945 384 441

Mugalde

Kale Barria 20, URDUÑA
945 384 247

Urioste taberna

Foru plaza 9.B, URDUÑA
945 383 234

Gorobel Jatetxea

Orruño 12, URDUÑA
688 811 517

Hotel Orduña Plaza

Foru Plaza 15, URDUÑA
945 569 038

Harresi jatetxea

Burdin 3, URDUÑA
945 384 988

Hikei jatetxea

Kale Barria 13, URDUÑA
945 384 892 / 652 705 945

Hiria jatetxea

Gernika plaza 5, URDUÑA
945 384 879

Rómulo jatetxea

Foru plaza 10, URDUÑA
945 383 510

El Infierno 2.0

Delika 69, URDUÑA
945 383 796

Igerilekuak

Prado pasealekua 13, URDUÑA
945 383 394

Sortetxe

Kale Barria 30, URDUÑA
945 383 282

Gernika kafetegia

Gernika plaza 4, URDUÑA
945 771 643

Frontoi taberna

Gran Via 13, URDUÑA
689 288 305

Uarena

Burgos 6, URDUÑA
945 779 049

Sukalki taberna

Burgos 12, URDUÑA
945 383 901

Artomaña Taberna

Artomaña

Non lo egin

Hotel Orduña Plaza

Foru Plaza 15, URDUÑA
945 569 038

Amaia Pentsioa

San Francisco 22, URDUÑA
945 383 090

Lupardika Pentsioa

Donibane 11, URDUÑA
945 383 371 / 628 245 001

Albinarrate Etxea

Zedelika 4, URDUÑA
616 560 500 / 945 383 306

Arteondo

La Iglesia auzoa 6, MENDEIKA
616 574 132 / 696 576 968

Urduña Hiria apartamentuak

Orruño 2, URDUÑA
621 209 221

Mimenza apartamentuak

Foru plaza 11, URDUÑA
656 757 818

Zikoinaren Etxea

Agua Salada, URDUÑA
659 021 104

Arana Etxea

Buen Suceso 3, URDUÑA
686 246 677

La Antigua Aterpetxea

Foru plaza 5, URDUÑA
945 384 830

URDUÑA JAIETAN

Belandiako eta Koroatzeko jaiak soilik mantendu dira, momentuz

UDALERRIKO AUZO ETA HERRI GEHIENETAN EZ DA EKINTZARIK EGINGO. BELANDIA ETA KOROATZEKO JAIK SOILIK OSPATUKO DIRA. KALEBARRIAKOAK ERE EGIN NAHI ZITUZTEN, BAINA AZKENEAN MEZA SOILIK EGONGO DA.

Bertan behera geratu dira Urduñan udan ospatzekoak ziren ospakizun gehienak. Belandiakoak eta Koroatzekoak soilik mantendu dira. Kalebarriko jaiak ere ospatu nahi zituzten, baina bertako jai batzordeak meza soilik egitea erabaki du azkenean.

Belandiako jaien kasuan, aldiz, antolatzaileek nabarmendu dute ekintza guztiak ez daudela oraindik zehaztuta, eta ez dakitela koronabirusaren pandemiak utziko dien programatutako ekintza guztiak gauzatzen.



BELANDIAKO JAIK

10.03 LARUNBATA

19:00 Bideo-foruma:
"Gorobelgo artzaintza"
Enrique Arberasekin, elizan

10.04 IGANDEA

10:00-12:00 Belandiako V. martxa historiko-kulturala

12:00-13:00 Emakumeen abesbatzaren emanaldia

13:00 Meza

10.05 ASTELEHENA


13:00 Hildakoen omenezko meza

KOROATZE JAIK

09.04 OSTIRALA

19:00 Kalejira "El trasno" gaita taldearekin

20:30 Kontzertuak: Iñaki Plaza & Koldo Uriarte eta Amak
Foru plazan



Rauli Olaya

09.05 LARUNBATA

12:30 Kalejira "El trasno" gaita taldearekin

09.06 IGANDEA

11:00 Meza nagusia
Antiguako Santutegian

12:30 Kalejira Santa Zezilia Bandarekin
Hiriko kaleak girotzen arituko dira

ZUFOIN
PODOLOGIA LAUDIO

- KIROL PODOLOGIA
- KIRURGIA BERRITZAILEAK
- KIROPODIAK
- OIN-DIABETIKOA

ABUZTUAN ERE ZABALIK!

KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

OROZKO

Gaztaina, Orozkoren funtsezko osagaia

Orozkoko historia eta ondarearen funtsezko osagaia izan dira gaztainak. Produktu horrek berebiziko funtzioa bete zuen herriaren ekonomian, oinarriko elikagai moduan erabiltzen zelako eta baita kanpora esportatzen zelako ere. Hala dio Iñaki Garcia Uribe ikerlariak: "Orozkoko izan zen gaztainaren munduko hiriburua". Bere hitzetan, duela 400 urte ekin zioten orozkoarrek gaztainak hartu eta kanpoan saltzeari: "Astero itsasontziak ateratzen ziren Bilboko portutik gaztainak Alemaniara, Herbehereetara, Ingalaterrara eta Bartzelonara eramateko". 1778. urtean gertaera esanguratsu bat jazo zen: gaztaina-saltzaileen matxinada. "Iruzur egin zieten", azaldu du Uribek, "kilo bakoitzeko sei erreale ordainduko zietela esan zieten, baina Bilbora iritsi zirenean lau erreale baino emango ez zietela esan zieten. Biltegiko atea bota zituzten eta bertan sartu zituzten gaztainak. Orduan korrejidorea agertu zen, erregearen ordezkaria. Gertatutakoa entzun zuen eta arrazoia eman zien gaztaina saltzaileei".

Kirikiñausien ibilbidea

Gaur egun gaztainak erabat galdu du bere garaian zuen pisua, baina garrantzi horren arrasto andana topatu daitezke. Kirikiñausiak dira deigarrienak. Harriz osatutako zirkuluak dira, gaztainak gorde eta sikatzeko baliatzen zirenak. "Orozkon 40 kirikiñausi daukagu. Horrek esan nahi du mota horretako azpiegituren heren bat baino gehiago daudela herrian. Hori garrantzitsua da, Europan ez dago parekorik", nabarmendu du Uribek. Kirikiñausi horiek berri eta ibilbidea osatu du Supelaurrek, eta Gaztaina Eguna antolatzen du urrian. Aurtengoa XX. edizioa izango da, bai ikusteke dago egin ahal izango duten.



Samuel Pasandin eta Zuhaitz Rodrighez "Zetaerre"

LTS TALLERES
Driver.

PNEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK

MEKANIKA INTEGRALA
KAMIOIAK ETA
AUTOAK

TORREZAR POL. IND. • OROZKO
TEL. 670 383 166
ltstalleres@grupo-driver.com

 **YANDIOLA**
HORTZ KLINIKA LAUDIO

Mediku zentroa RPS: 314/18
Karmen Kalea 13, behea
LAUDIO (Araba)
946 72 31 00

75 urte zurekin



PADI PROGRAMA



INPLANTEAK



3D ERRADIOGRAFIAK

Santa Marinatik

Jesurira, paseo ederra

Orozkora begira

Paseo luze zein laburrak emateko aukera ugari eskaintzen ditu eskualdeak, eta Orozkok, zer esanik ez. Itxina mendilerroaren magalean zein aurrean, ibilbide asko osatu daitezke. Horietako bat da Santa Marina ingurukoa.

Santa Marinara nola iritsi

Orozkotik oinez zein autoarekin ailegatu daiteke Santa Marinako ermitara. Hilerritik gora egin behar da horretarako. Maiurturako seinaleari jarraituz -Orozkorako sarbidea kantera ingurutatik eginenez gero- iritsiko da bidaidea Santa Marina helmuga duen errepidera. Donibane eliza eraberritua atzean utzita, Meatzako auzoa igaro behar da. Asfalto bidea izanik, ohikoa da oinez, bizikletaz zein kotoxez bat edo beste gurutzatzea. Zuhaitz artean altuera handitu egiten da bisitariarentzat. Dena den, egarriagatik ez kezkatu: Santa Marinara iritsi aurretik iturri fresko-freskoa dago: Jesuripozoeta. Hain zuzen, bertatik ateratzen da Elorritxuganera doan pistetako bat. Elorritxuganetik Laudiorako ibilbidea ere egin daiteke, edota Jesurira hurbildu. Oso ohikoa da ardiak, behiak edota zaldiak topatzea bidezka edo zuhaitz artean.

Jesuri eta Arriurdin

Santa Marinan autoa aparkatuta, erraz topa daiteke Jesurirako bidea. Izan ere, seinaleek inguruko tontor eta auzoen denboraren zein distantzien erreferentziak ematen dituzte. Ibilaldiaren hasiera eta amaiera puntua Santa Marina izango da kasu honetan. Azpimarratzekoa da ermita eta aterpetxeak barbakoa egite-

ko gunea edota jateko zein atsedenerako mahai eta bankuak dituela. Zalantzarik gabe, Untzueta, itxina edota Gorbeia aurrean ditugula, bista izugarriekin egiten da topo.

Santa Marinatik errepide pista hartuta, Jesuri, Elorritxugane eta Aiurdinerako bigurutzera heltzen da. Jesurira kilometro bateko distantzia soilik dago, eta ez du aldapa handirik. Hargatik, oso egokia da familia giroan edota umeekin egiteko.


Jesuriko gainetik Gorobel mendilerro osoa ikusten da, eta eguraldia ona bada, Gasteizeraino luzatzen da ikus eremua. Era berean, Amurrio eta Aiarako zelaiek pizten dute mendizaleen arreta. 724 me-

tro ditu Jesurik, eta Arriurdin tontorrera (720 metro) 10 minutu eskas daude. Bertatik Gorbeia eta Oderiagako gailurrak dira bisitarien begietan gailentzen direnak. Santa Marinako ermita ez da bistatik sekula galtzen, beraz, ez du galbiderik zeharkaldiak.

Guztira, ordubete inguruko itzulia da Santa Marina-Jesuri-Arriurdin hirukotea. Elorritxugane ibilbidean txertatuz gero, ordea, 1.5-2 orduko buelta bihurtzen da oinezkoentzat. Alabaina, bizikletaz zein korrika gozatzeko, txango labur bezain polita da ere. Mendiko animaliek eta gizakiek elkar errespetatzen duten paradisu-



Santa Marina izango da irteera eta helmuga puntua. Bertara autoan iritsi daiteke Orozkoko hilerritik, Meatza auzoa atzean utzita. Gainera, Santa Marinan mokadurako mahaiak eta parrilladak daude. Horrez gain, ermita eta aterpetxea ere badaude.



Santa Marinatik gertu, Jesuri, Elorritxugane eta Arriurdinerako bidegurutzea dago. Seinaleak markatzen du norabidea.



Santa Marinatik Gorbeia edota Ganekogorta mendiak ikusten dira. Orozkoren magalean, toki paregabea da aisiaz edo iluntzeaz gozatzeko, baita parapentean dabiltzanak, zaldiak edo behiak ikusteko; errespetuz beti ere.



Jesurirako bidea hartuta, laster iristen da tontorrera. Ordu erdi inguru behar da Jesuriko gaina zapaltzeko.



Muinoaren ezkerretara joz gero, tontor markatik ezkerreara, Arriurdinerako bidea hartzen da. Aldapa jaitsi ostean koska bat gora eginda iristen da bigarren tontorrera.

ARGAZKI ERREPORTAJEA



Jesuritik Arriurdinera 15 minutu inguruko tartea dago. Santa Marina, Untzueta eta Itxina ez dira bistatik sekula galtzen.



Arriurdinetik Gorbeia eta Oderiaga mendietako bistak izugarriak dira. Edozeinentzat egingarria da bidea: haur, gazte zein heldu. Momentuaren arabera, ohikoa da ardiak edo zaldiak topatzea larreetan.



Elorritxuganera joateko, berriz, Santa Marinara heldu aurreko bidegurutzeko markak jarraitu behar dira.



Bidegurutzean iturria eta ur freskoa izaten da eskura. Aldapa gora hartuta Elorritxuganerako bidearekin egiten da topo, eskumako pista hartu behar da horretarako.



Elorritxuganetik Laudio da herri gertukoena. Bertatik ere igo daiteke mendira. Ezkerretan Gorobel begizta liteke, eta atzean Jesuri.

Ibilbidearen tarte honetan ere erraza da ardiekin, ibiltariekin zein mendi txirringulariekin gurutzatzea.



Aurrez eginiko bide bera hartuta, Santa Marinara itzultzen da bidaidea. Santa Marinako bidegurutzetik Elorritxuganera iristeko 45 minutu inguru behar dira.

Datuak

DENBORA: Ordubete inguru Santa-Marina Jesuri eta Aiurdin lotzeko, eta Elorritxugane-Santa Marina zapaltzeko beste ordubete gutxi gorabehera / NONDIK: Santa Marinako aterpetxetik (Orozko).

IRRINTZI
euskal jantzi denda

Askotariko maskarak

📍 Batzalarrin Kalea, 9 Laudio ☎ 944 072 215
📱 Irintzi, euskal jantzi denda

IZA
ascensores

- ✓ Marka anitzeko igogailuen mantentze-lanak.
- ✓ Berehalako erantzuna.
- ✓ Hurbileko arreta, pertsonalizatua.

www.izaascensores.es ☎ 94 672 21 52

Non jan eta edan

Zubiaur kafetegia

Zubiaur plaza,
OROZKO
946 33 98 70

Eneko taberna

Gorbeia 11, OROZKO
946 56 77 35

Manzarbeitia

Albiorreta 11, OROZKO
946 61 02 63

Batzokia

Zubiaur plaza, OROZKO
946 33 07 36 / 697 262 616

Arrugaeta jatetxea

Zubiaur plaza 8,
OROZKO
946 61 00 01

Iza jatetxea

Gorbeia 7, OROZKO
946 61 00 03

Itxina taberna

Burgoskale 2, OROZKO

Txomin taberna

Bengoetxea, OROZKO
946 61 01 47 / 946 61 01 53

Jaiak, bertan behera

Bertan behera geratu dira Orozkoko sanantolinak, COVID-19a dela eta. Uztailean hainbat batzar egin dituzte horren inguruan hitz egiteko, baina, azkenean, halako ekintzarik ez egitea adostu dute azkenean Antolinzeak jai batzordeak eta Orozkoko udalak. Udan zehar ospatzekoak ziren auzotako jaiak ere bertan behera geratu dira, arrazoi berdinak medio.

Non lo egin

Aititerena

Manzarraga 6, OROZKO
605 727 878

Artiñano etxea

Beraza 4, OROZKO
622 048 798 / 675 702 320

Etxegorri

Urigoiti 10, OROZKO
636 967 064

Garai

Beraza-Garai 5,
OROZKO
946 33 05 06

Osabarena Hotela

Murueta 14, OROZKO
946 94 11 46

Patxikoren Etxea

Urigoiti 1, OROZKO
679 882 686

Babestutako edukia



Aida Fuentes Iza

IZA OKINDEGIA

Oso zaila da lanean jarraitzea, zure inguruan, mundua etenaldian sartzen denean. Dendek eta tabernek atek itxi dituzte; kaleak hutsik eta trafikorik gabe daude; eta izugarrizko isiltasuna okindegiko ilaran. Maskarek estaltzen dituzte bezeroek esker onez botatzen dizkizuten irribarreak; eta zalantzazko begiradak gehiago nabarmentzen dira. Erretinan luzaroan grabatuta izango dudana irudia da, sekula ez dut ahaztuko.

Berehala ulertu nuen luze joko zuen egoera zela; beraz, gure bezeroen egoera eta beharretara egokitu behar ginen. Ordutegiak eta ekoizpen sistema berantolatatu genituen, baina batez ere, etxez etxeko banaketa ezartzea funtsezkoa zela pentsatu nuen. Gure ogiak etxe guztietara iritsi ahal izatea, hegoak jantzea. Zorionekoa sentitzen nintzen lan egin ahal izateaz, nire arima osoaz. Nire bezeroen esker ona zen eguneroko energia-dosia. Baina benetan eskertu nahi diot nire lantaldeari egindako lana eta esfortzua. Zein polita den konturatzeari inguruan horrelako jendea duzula. Eskerrik asko! Gora ogi osasuntsua!



Kurtzegana, 3 · Orozko 94 661 00 68 / Zumalakarregi, 30 · Laudio 94 672 84 94
okindegiaizahnospandaria@gmail.com Facebook: pandariaiza

ZUFOIN
PODOLOGIA LAUDIO

- KIROL PODOLOGIA
- KIRURGIA BERRITZAILEAK
- KIROPODIAK
- OIN-DIABETIKOA

ABUZTUAN ERE ZABALIK!

KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

ARTZINIEGA



JOSEBA VIVANCO RETES
Artziniegako alkatea



Jendea da festaren arima. Eta eguneroko pozak ospatzeko eta arazoak ahazteko uneak behar ditugun arren, aurten jendea ez dago festetarako. Festak ospatzeko gogoia baretzea dagokigu, zaintza kolektiboaren mesedetan, birusak hor jarraitzen baitu, eta festak, kontzentrazioak, familia eta lagunak ospakizunak birus-haztegia dira. Aurtengo irailean ez da jairik egongo Artzinengan, Antzinako Azoka egongo ez den bezala. Baina horrek ez du esan nahi Artziniegak COVID-19agatik itxi duenik. Uda honetan gure herriaz gozatzen ari gara, eta horregatik gonbidatu nahi zaituztet aiaraldea guztiak Artziniegara, etxe ondoko herri txiki baina aberatsaz gozatzera. Metroko gutxitan ez duzu aurkituko gurea bezain berezia den hirigune historikorik, hiru museo nabarmenekin batera: Etnografikoa, Santxotena tailer-museoa edo arte sakroarena. Arteko Gure Amarena balio artistiko eta sinbolikoko santutegia da, eguna pasatzeko proposa den aisialdirako zelai baten ondoan dagoena. Ingurune naturala, ibilbideak, ibilaldiak. Ibilbide eskultoriko estreinatua berria Erdi Aroko almendrako kaleetan zehar. Eta poteo-giroa asteburuetan, izugarri gustatuko zaizuna. Dena hemen ondoan, zu noiz etorriko zain, Artziniegak ez baitu COVID-19agatik ixten.

Artziniega
Ayuntamiento



Artziniegako
Udala

Artziniega

bitxikeria eta historiaren "hiriko atea"

Alfontso X.a Jakitunak eman zion aitortza Artziniegari, 1272. urtean. Orduan hasi zen Artziniegako historia idatzia, Alberto Gutierrez-Barquinen aburuz. "Hala ere, lehenago

jendea bizi zen. Erromatarren harri batzuk aurkitu zituzten, eta Erreteseko kobabatean *Brontzezko alabak*". XV. mendetik gaur arte, Alde Zaharra berdin mantenduda, jakin duenez. Almendra itxura du egi-

turak, eta hiru kalez osatua dago: Barrenkale, Artekale eta Goienkale. Aiaraldea. eus atarian Artziniegako Alde Zaharraren historiari buruzko argazki erreportaje sakonagoa dago.



"Hiriko Atea" eta pareko aldapa igarota, Ortiz de Molinillo dorrea da Artziniegako eraikinik esanguratsuen, Gutierrez-Barquinen iritziz. 1593. urtean eraiki zuten, atearen goiko partean ikus daitezkeen. Soxogutikoa zen sendia, eta han zeukaten dorrea erre zitzaizenean etorri ziren Artziniegara, eta gaur egun zutik dagoena eraiki". Aiarako dorrea izan zen aurrez, "Artziniega independizatu arte Aiarako jauntxoena baitzen". Aiarako defentsa dorreari buruzko bi teoria daude, ordea: "Batzuek Goiko plazan zegoela diote, merkatuaren parean, eta besteek hemen".



Artziniega harresitutako herria izan zen, garaiko idazleek idatzi zuten, eta bi ate zituen. "Hiriko atea" da ezagunena, Barrenkalerekin muga egiten duena. XIX. mendean, "harresiak behar ez zirenean, udalak lur sailak herritarrei utzi zizkien baratzak eta beste egiteko. Ronda bat zegoen, gauzez atea ixten zirela jartzen baitu udaletxeko agiritan", dio Alberto Gutierrez-Barquin bisita gidari oihak.



Goikoplazan merkata zen ezaguna, udaletxe zaharra dagoen plaza. Asteazken eta igandetan izaten zuten hitzordua: "Igan-deetakoa kendu nahi zuen elizak, baina Artziniegak 'pribilegio erreala' zuen, eta horregatik mantendu ahal izan zen". Burgoseko Mena haranetik ere bertaratzen zen jendea. "Bitxikeria gisa, Goiko plazako paretetan ganadua lotzeko elementuak daude".



Gerra garaian erietxe edota okindegi funtzioak ere bete zituen eraikinak. Alabaina, eraikina eraitsi eta Artziniegako harresia indartzeko baliatu zuten. Izan ere, Artziniega ere bete-betean harrapatu zuen Gerra Zibilak.



Udaletxe zaharraren behealdean kartzela egon zen. 1864. urtean eraiki zuten, atean ikus daitekeenez.


Asesoría Aiala

**Fiskala - Kontablea
Laborala - Aseguruak**

Enpresen eta autonomoen
aholkularitza

> Iturralde, 1 · AMURRIO
Tel.: 945 890 450
Fax. 945 890 001
e-mail: aiala@asesoriaaiala.com

ARGAZKI ERREPORTAJEA



Karlos V.a izan zen bertan egon zenetako bat. Diotenez, Artziniegako adierazpenarekin hasi zen bere gainbehera.



Monteano eta Oribe Salazar sendiak eraiki zuen egun mojena den konbentua. Herentzia gisa elizari utzi zioten, alaba-semerik ez zutelako. Atearen gainean beraien erretratuak daudela diote zenbaitek, frogatua ez badago ere.



Elizako arkupeak Artziniegako margolariek eginak dira. Bitxiak dira, "umorea" emateko egungo elementuak baitituzte santuek, telefonoa kasu.



Elizak ere badu mamia. Kanpai-joleak planto egin zuen, inguruko ofiziotikideen babesa lortuta, ekaitz-deia jotzeari. Horrez gain, elizaren azken zatia udaletxea izandakoa da. Artziniegak, beraz, 3 udaletxe ditu "zutik".



Artziniegako Eskola Zaharretan mutilek ikasten zuten. Emakumezkoek aparteko zentroa zuten. Ursula Largatxa soxogutiarrek emakumeen lan-baldintzak hobetzea lortu zuten XVI.mendean.



Artziniegak Arabako tranbia bakarra izan zuen 1900. urte inguruan: Soduperaino zihoan. Euskal Herriko lurren tranbia bakarra zen. Istripu baten ondorioz utzi zuten zerbitzua bertan behera, aldapan ibilgailua irauli eta pertsona bat hil baitzen.



Lurpeko upategia, gerra garaian babes eremu bilakatu zuten. 864. urtetik ekoizten zen txakolina Artziniega inguruan.



Fraguatarren sutegia da Artziniegako bizitza modernoaren mugarrria. Gurpilak egiten zituzten bertan. Igandero 12:00-14:00 arte bisita daiteke. Garaiko tresneria eta lanbideak erakusten dituzte, Artea Museoko kideei esker.

Datuak

Artziniegako Alde Zaharrean 47 armarridun eraikin daude. Artea Etnografia Museoan herriko lanbide zaharren historia eta garaiko bizimodua ezagutu daiteke.



Tailer eta emanaldi ugari egingo dituzte irailaren 4tik 8ra



Koronabirusak erabat baldintzatuko ditu Artziniegako aurten-go jaiak. Jai batzordeko kideek hainbat bilera ireki egin dituzte asteotan, zer eta nola antolatu pentsatzeko.

Oraindik zehazteke dute egitarau osoa,

baina hainbat tailer eta emanaldi prestatuko dituztela aurreratu dute, "COVID-19aren aurkako neurriak errespetatuz betiere". Bost egunetan egingo dituzte jarduera guztiak, irailaren 4tik 8ra. Abuztuan zehar bilera gehiago egingo dituzte.

Non jan eta edan

Batzokia

Barrenkale 19,
ARTZINIEGA
945 39 68 56

Dondeva

Jauregia 3, ARTZINIEGA
635 74 85 41

El Fresno

Gordeliz-La Venta,
ARTZINIEGA
945 39 63 99

Itxandaia Berria

Barrenkale 29, ARTZINIEGA
642 85 64 84

Igerilekuak

La Barcena 7, ARTZINIEGA
945 39 64 23

Kobá

Barrenkale 2, ARTZINIEGA
945 39 65 08

La Encina

Garay etorbidea 4,
ARTZINIEGA
945 39 60 40

La Villa

Hiriko Atea 3, ARTZINIEGA

Montenegro

La Venta auzoa 9,
ARTZINIEGA
945 39 63 23

Ostargi

Barrenkale 9, ARTZINIEGA
945 39 65 08

Plaza

Garay plaza 4,
ARTZINIEGA
675 10 36 36

ZUFOIN
PODOLOGIA LAUDIO

- ▶ KIROL PODOLOGIA
- ▶ KIRURGIA BERRITZAILEAK
- ▶ KIROPODIAK
- ▶ OIN-DIABETIKOA

ABUZTUAN ERE ZABALIK!

KARMEN KALEA 15, 1.solairua LAUDIO
94 672 52 57
laudiopodologia@gmail.com

hitz zentroa

LOGOPEDIA / PEDAGOGIA
FISIOTERAPIA PEDIATRIKOA
OSASUN OROKORREKO PSIKOLOGIA
SEXOLOGIA KLINIKOA

PROFESIONAL EUSKALDUNAK ZURE ZERBITZURA

Arreta goiztiarra (0-6 urte)

Karmen kalea 39, 01400 LAUDIO hitz.zentroa@gmail.com
Tel.: 94 672 63 91 / 656 74 27 22



KOT

kot.eus
@kotnatura

Tologorri
1066m

Aurtengo udan, inguruko paisaiak berraurkitzeko gonbidapena luzatzen dizugu, gertu daukaguna baloratu, bizi eta zaintzeko.

Argazkia:
Endika Larrazabal
(@larraend)

gazteria *g* **juventud**
ARABAKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

ZEIN DA ZURE EGITEKOA?

¿CUÁL ES TU PAPEL?

#ZeinDaZureEgitekoa

**COVID_19AREN AURKAKO BORROKAN
ZU ZARA GAKOA**

www.cualestupapel.com

ORDAINDU MUGIKORRAREKIN TXARTELAREKIN BEZALA

Batzuetan gauzak ahalik gehien erraztea komeni izaten zaizunez, ordaindu mugikorrarekin txartelarekin bezala.

Deskargatu LK Pay* appa edo erabili Apple Pay**, eta ordaindu saltokietan zure mugikorra ordainketa-terminalera hurbilduta besterik gabe.

Berritzea gauzak erraztea da.



*NFC teknologia duen Android 4.4 edo geroagoko platafor-marekin egin daiteke mugikor bidezko ordainketa.

**Apple Payk gailu hauek onartzen ditu: iPhone XS, iPhone XS Max, iPhone X, iPhone 8, iPhone 8 Plus, iPhone 7, iPhone 7 Plus, iPhone 6s, iPhone 6s Plus, iPhone 6, iPhone 6 Plus, iPhone SE, iPad (6. belaunaldia), iPad Pro, iPad (5. belaunaldia), iPad Air 2, iPad mini 4, iPad mini 3, Apple Watch Series 4, Apple Watch Series 3, Apple Watch Series 2, Apple Watch Series 1, Apple Watch (1. belaunaldia), Touch ID duten Mac modelook eta 2012an edo geroago merkaturatutako Mac modelook, baldin eta iPhone bat edo Apple Watch gaituta badute Apple Pay erabiltzeko. Face ID duen Apple Payk gailu hauek onartzen ditu: iPhone X edo ondorengoak.



LABORAL
kutxa

Bada beste modu bat